



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2015eko apirilaren 10a

49. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Uharteko Udalarari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (2. or.).
- Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoretzako teknikari izateko hiru lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa (42. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Uharteko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko martxoaren 2an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako Uharteko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

1. txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Uharteko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (3. or.).

II. Helburua (6. or.).

III. Iritzia (7. or.).

III.1. Udalaren 2013ko kontu orokorrari buruzko iritzia (7. or.).

III.2. Tresna-enteen 2013ko urteko kontuei buruzko iritzia (8. or.).

III.3. Udalaren eta tresna-enteen 2013ko finantza-egoera 2013ko abenduaren 31n (8. or.).

III.4. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea (13. or.).

III.5. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetzea (14. or.).

III.6. Amaierako ondorioa edo laburpena (14. or.).

IV. 2013ko kontabilitateko egoera-orrien laburpena (15. or.).

IV.1 Udalaren 2013ko kontu orokorra (15. or.).

IV.2 Areacea, SAU sozietatearen urteko kontuak (18. or.).

V. Egindako lanaren azterketa (20. or.).

V.1. Alderdi orokorrak (20. or.).

V.2. Udaleko langileak (21. or.).

V.3. Udalaren ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastua (22. or.).

V.4. Udalaren transferentzia arruntengatikoko gastuak (23. or.).

V.5. Udalaren inbertsioak (24. or.).

V.6. Udalaren aurrekontuko diru-sarrerak (25. or.).

V.7. Hirigintza (27. or.).

V.8. Patronatuak (28. or.).

V.9. Enpresen sektore publikoa (31. or.).

V.10. Fundazioen Sektore Publikoa (35. or.).

Eranskina. Arte Garaikideko Zentroa fundazioaren 2013ko kontabilitateko egoera-orrien laburpena (37. or.).

Uharteko Udalari buruzko 2013ko behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (38. or.).

Uharteko Udalak aurkeztu dituen alegazioei Kontuen Ganberak eman dien erantzuna (39. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak eskatuta, 2013ko azaroan erabaki zuen Kontuen Ganberari eskatzea Uharteko Udalari eta haren menpeko enteei eta tresna-enteei buruzko fiskalizazio finantzarioa eta legezketasunaren betetzeari buruzkoa egin dezan.

Halaber, Uharteko Udalaren 2013ko azaroko Osoko Bilkurak erabaki zuen Kontuen Ganberari eskatzea Udalaren kontuak eta kudeaketa azter ditzan.


Eskatutakoak betetzeko, Ganbera honen 2014ko Fiskalizazio Programan sartu zen 2013ko ekitaldiko kontuei buruzko azterlana egitea.

Uharteko udalerriak 3,7 km²-ko azalera du, eta 2013ko urtarrilaren 1ean, 6.781 biztanle dauzka.

Udalaren sektore publikoa, foru araudiari jarraituz, honako entitateek osatzen dute 2013ko abenduaren 31n:

- Bi patronatu edo erakunde autonomo, Udalaren kirol jarduerak eta musika eskola kudeatzeko.
- Areacea, SAU hirigintza kudeaketarako udal sozietatea (ehuneko ehun Udalarena). Hirigintza-kudeaketarako sozietate bat da, hirigintza-ondarea ere baduena, eta haren jardueraren ardatzak, gaur egun, funtsean etxebizitza publikoen alokairua eta beste aktibo batzuen kudeaketa dira (izotz-pista, merkataritza-galeria, bainuetxea eta abar).
- Uharteko Arte Garaikideko Zentroa Fundazioa (haren sorrerako zuzkiduraren ehuneko 60 Udalarena da eta ehuneko 40, berriz, Areacea sozietatearena). Jarduera, funtsean honakoetan datza: arte garaikidearen sustapena eta Arte Garaikideko Zentroa Museoaren kudeaketa.

Udalaren eta haren menpeko erakundeen osaera ondoko grafikoan agertzen da:



2013ko ekitaldia ixtean, erakunde horien guztien funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

- Udala eta erakunde autonomoak

Entitate administratiboak	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2013-12-31n
Udala	6.067.659	5.979.702	35
Kirol Patronatua	1.175.843	1.141.649	3
Musika Patronatua	271.004	254.894	11
Bateratzearen doitzeak	-422.500	-422.500	-
Bateratua, guztira	7.092.006	6.953.745	49

Udalak bere patronatu guztiei 2013an 422.500 euroko ekarpena egin die guztira (132.500 euro Musika Patronatuari eta 290.000 euro, berriz, Kirol Patronatuari).

Udalaren eta haren erakunde autonomoen egoera-orri bateratuak likidazio fasean egiten dira, eta jasotzen dituzte bai aurrekontuaren kapituluaren arabera betetzea –aitortutako betebeharren eta eskubideen arabera soilik–, bai aurrekontu-emaitza, diruzaintza-gerakina eta egoera-balantzea ere.

- Tresna-enteak: Enpresa eta fundazio publikoa

Tresna-enteak	Gastuak	Diru-sarrerak	Langileak, 2013-12-31n
Areacea, SAU sozietatea	1.309.447	481.441	2
Arte Garaikideko Zentroa fundazioa	399.701	478.358	2,75

Zehaztu beharra dago Osoko Bilkurak, 2013ko azaroaren 28ko bilkuran, aho batez erabaki zuela Areacea sozietatea desegiteko prozedurak hastea.

Areacea sozietatearen eta Arte Zentroaren fundazioaren urteko kontuen auditoria kanpoko profesional batzuek egiten dute. Lan horietatik, haien iritzi profesionala eta lan horietan jasotako ondorioak atera dira; halaber, entitate horiek egindako jarduketa eta eragiketa nagusiak aztertu dira, bai eta Udalarekiko fluxu finantzarioak ere. Aipatutako fundazioaren urteko kontuak ez dira sartu Udalaren kontu orokorrean.

Bestalde, Areacea sozietateak bi sozietate misto eratu zituen, bi bazkide pribaturekin eta honako xede sozialetan kapitalaren ehuneko 51ren partaidetza hartuta: etxebizitzak eraiki eta sustatzea –"Urarte Desarrollo Urbano, S.A."– eta lurrazpiko aparkaleku bat eraiki eta ustiatzea –"Mokarte Aparcamientos Subterráneos, S.L."–. Sozietate horiek 2012an eta 2013an likidatu dira, hurrenez hurren. Fundazioen esparruan, 2012an erabaki zen Buldain Fundazioa likidatzea.

Bi erakunde autonomoen kudeaketa ekonomiko eta aurrekontukoa Udalak berak egiten du. Udala da, halaber, musikaren arloko erakundearen kontabilitate-kudeaketaz arduratzen dena. Sozietatearen eta fundazioaren kudeaketa ekonomiko eta aurrekontukoa haien langileek egiten dute.

Udala, gainera, honako hauetako kidea da:

- Iruñerriko Mankomunitatea: haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendua, ibai-parkearen kudeaketa eta eskualdeko hiri-garraioari dagozkion zerbitzuak eta taxi-zerbitzuak.
- Uharteko eta Esteribarko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, funtsean gizarte zerbitzuak eta enplegu sozial babestukoak emateko.

Guztira hartuta, mankomunitatean dituen zerbitzu hauek guztiek ondoko gastua eragin diote Udalari:

Zerbitzuak	Udalarentzako gastuak 2013an
Iruñerriko Mankomunitatea-Eskualdeko garraioa	139.184
Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	141.030

Laburbilduta, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taula honetan ageri dira:

Servicio	Ayto.	OOAA	Mancomunidad	Contratos servicios	Sociedad y fund. pública
Servicios Administrativos Generales	X				
Alguaciles	X				
Escuela de Música		X			
Colegio Público	X			X	
Servicios Sociales			X		
Empleo Social Protegido			X		
Fomento Empleo	X				
Cementerio	X				
Urbanismo	X			X	X
Centro Infantil 0-3				X	
Centro Cultural	X			X	
Juventud	X				
Igualdad				X	
Deportes		X		X	
Biblioteca	X				
Ludoteca				X	
Bebeteca			X		
Euskera	X				
ORVE			X		
Abastecimiento de agua			X		
Residuos Urbanos			X		
Transporte comarcal			X		
Mantenimiento Parque Pluvial			X		
Limpieza viaria	X				
Club Jubilados				X	
Albergue de peregrinos				X	
Museo de Arte Contemporáneo					X

Aurrekontu-egonkortasunari buruzko araudiaren eraginetarako, Uharteko Udalaren administrazio publikoaren sektorea Udalak berak, haren erakunde autonomoek eta Arte Zentroa fundazioak osatzen dute. Areacea merkataritza sozietateak merkatuko unitate baten gisara hartzen da, zeren eta haren salmentek ekoizpen kostuetan egiten duten ratioa, azken hiru ekitaldietan, batez beste, ehuneko 50eko irizpide kuantitatiboa gainditzen baitu; hala eta guztiz ere, 2013an, ratio horren balioak jada ez du gainditzen aipatutako ehuneko 50a; izan ere, hori, era berean, etorkizuneko ekitaldietan gertatuko da; horrenbestez, amaieran, sozietate hori Udalaren administrazio publikoaren sektorean integratuko litzateke.

2009ko ekainean, Ganberak udal horren 2007ko ekitaldiari dagozkion kontu orokorrei buruzko fiskalizazio txosten bat eman zuen.

Toki entitateari 2013ko ekitaldian aplikatzekoa zaion araubide juridikoak funtsean osagai hauek ditu: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna ere. Entitatearen aurrekontua 2013ko martxoaren 27an onetsi zuen Udalaren Osoko Bilkurak. 2014ko urriaren 30eko Osoko Bilkurak 2013ko kontuak onetsi zituen.

Merkataritza-sozietateari dagokionez, bere estatutuek eta toki-araubidearen araudi orokorrak eta indarrean dagoen merkataritza-araudiak arautzen dute; bereziki, Merkataritza Kodeak, Kapital Sozietateen legeak eta Kontabilitate Plan Orokorrak. Fundazioa bere araudi berariazkoak eta irabazi asmo-rik gabeko entitateei egokitutako Kontabilitate Plan Orokorrak arautzen dute.

Txostenak bost atal dauzka, sarrera hau barne; bigarrenean, txostenaren helburuak erakusten ditugu. Hirugarrenean, Udalaren eta haren tresna-enteen 2013ko kontu orokorrari buruzko iritzia. Laugarrenean, Udalaren eta haren sozietate publikoaren kontabilitate-egoera nagusiak laburbiltzen dira. Az-

kenik, bosgarrenak egindako lanaren arlokako analisi zehatza dauka, udalaren eta haren enteen antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorio eta gomendioekin. Eranskin bat gehitu dugu Arte Garaikideko Zentroa fundazioaren 2013ko kontabilitateko egoera-orrien laburpenarekin.

Zelaiko lana 2014ko urritik abendura bitartean egin du auditoriako lau teknikarik eta auditore batek osatutako talde batek, eta Kontuen Ganbarako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen lan-kidetza ere izan dute.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak ematen dizkiegu Uharteko Udaleko eta haren menpeko enteetako eta tresna-enteetako langileei.

II. HELBURUA

Parlamentuaren eta udalaren eskaria betez eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Uharteko Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorraren finantza-fiskalizazioa eta legezkontasunaren betetzeari buruzkoa egin ditugu.

Txostenaren helburua da honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

- Ea Uharteko Udalaren eta tresna-enteen 2013ko ekitaldiko urteko kontuek Udalaren egoeraren irudi zehatza erakusten duten alderdi nabarmen guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2013ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian egindako eragiketen emaitzei dagokienez ere, aplikatzekoa den informazio finantzarioari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate-printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

- Udalak 2013an izandako jarduketa ekonomiko-finantzarioari aplikatzekoa zaion legeriaren bete-tze-maila.

- Udalaren eta haren tresna-enteen finantza-egoera 2013ko abenduaren 31n.

- 2013ko ekitaldirako aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuen bete-tzea.

- Zenbateraino betetzen diren Ganbera honek 2007ko ekitaldiari buruzko txostenean emandako gomendioak.

Txostenari erantsi zaizkio, halaber, egokitzat jotzen diren aholkuak, Udalak eta haren menpeko entitateek ezarritako barne-kontrolako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetu edo/eta osatze aldera.

III. IRITZIA

III.1. UDALAREN 2013ko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA.

Uharteko Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu dugu. Haien kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako V.1 atalean.

Udalaren erantzukizuna

Alkatea da kontu orokorrak egiteko ardura duena. Halako moduz egin behar ditu non leialki irudikatu baitituzte Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzepzioa, ezarpena eta mantentzea.

Udalak, gainera, bermatu beharko du finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela indarreko araudiarekin.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako kontu orokorren fidagarritasunari buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz. Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek exijitzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburuarekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbatekoei eta kontu orokorretan adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezkotasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta kontu orokorren aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure fiskalizazio-iritzia emateko.

Finantzen eta legezkotasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren emaitzatik honako **iritzia** erartzen da.

III.1.1. 2013ko kontu orokorrari buruzko finantza-iritzia

Iritziaren oinarria, salbuespenekin

- Egoera-balantzean, ezin izan dugu ebidentziarik lortu "Ibilgetu materialaren" eta "Erabilera orokorrerako azpiegitura eta ondasunen" kontabilitate-saldoen arrazoizkotasunari buruz –2013ko abenduaren 31n, 23,94 eta 43,63 milioikoak dira, hurrenez hurren–, zeren eta ez baitaude babestuta egoki baloratutako ondasunen inbentario orokor batean.

- Aurrekontu-likidazioari ez zaio egotzi 2013an Areacea sozietateari emandako mailegu bat, milioi bat eurokoa. Eragiketa horrek aurrekontu izaera duela jo da, eta ohartu da kontabilitate-tratamendua ez datorrela bat sozietate horri emandako gainerako maileguetan aplikatutakoarekin; izan ere, azken horiek egotzi egin zaizkio 2013ko aurrekontuari. Tratamendu hori justifikatzeko esaten da maileguaren muga-eguna, hasiera batean, bederatz hileren buruan zela, eta maileguaren, xedea, berriz, sozietate horrek itundutako mailegu baten finantza-zamaren nabarmen jaistea zela.

Iritzia

Gure iritzian, "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" lerrokadan azaldutako egitateen eraginengatik ez bada, erantsitako kontu orokorrek irudi zehatza erakusten dute alderdi esanguratsu guztietan, ondareari, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta Udalaren 2013ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

III.1.2. Legezkotasunaren betetzeari buruzko iritzia

Gure iritziz, Udalaren 2013ko ekitaldiari buruzko finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, aplikatzekoak diren arauekin.

III.2. TRESNA-ENTEEN 2013ko URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Areacea sozietatearen eta Arte Garaikideko Zentroa fundazioaren 2013ko urteko kontuak auditoria-enpresa batek auditatu ditu, Kontuen Auditoriari buruzko Legean ezarritakoaren arabera, egiaztatze aldera haien kontabilitateko egoera-orriek ondarea, finantza-egoera eta 2013ko ekitaldiaren emaitzak egoki islatzen dituztela.

Finantza-auditoriako txosten horietatik, honako iritzi hau atera dugu:

III.2.1. Areacea, SAU sozietatearen urteko kontuei buruzko iritzia

Auditoria-txostenak iritzi bat jasotzen du, aurreko ekitaldian akziodun bakarrarekin (Udala) egindako eragiketetatik heldu diren salbuespenen ondorioz aldatua. Salbuespen horiek, laburbilduz, honakoei buruzkoak dira:

- Egindako doako lagapen edo permutetatik eta haien kontabilitate-aurkezpenetik sortu diren ondasun zein eskubide batzuei emandako balorazioetatik heldutako doikuntzak.
- Zergen aurretiko etekinen gehiegizko balorazio batetik heldu diren salbuespenak; balorazio hori doan edo permuta bidez lortutako ondasunen gehiegizko balorazioaren eta haien kontabilitate-tratamendu okerraren ondoriozkoa da.

Iritzian eraginik ez badu ere, auditoreek ohartarazi dute administratzaileek sozietatearen urteko kontuak funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioaren pean landu dituztela, zeren eta jotzen baitute akziodun bakarraren (Udala) laguntza finantzarioa dutela, eta, horrenbestez, sozietateak bere aktiboak gauzatzeko eta pasiboak urteko kontuetan ageri den balioaren arabera likidatzeko gaitasuna duela, 2014rako eta 2015erako jarduketa planeko aurreikuspenei jarraituz.

III.2.2. Arte Garaikideko Zentroa fundazioaren urteko kontuei buruzko iritzia

2013an, kontu horiei buruzko iritzi aldekoa edo aldaketarik gabea du; hau da, kontu horiek fundazio horren ondare-egoera eta haren emaitzak islatzen dituzte.

2012ko ekitaldiko txostenean, eta auditoriari buruzko iritzian eraginik izan gabe, ohartarazten zen fundazioak ondare-desoreka bat zeukala, sortutako gairik negatiboen ondorioz, halako moduz non, 2012ko abenduaren 31n, ondare garbi negatiboa baitzuen, 232.426 eurokoa, sorrerako zuzkidura 6.000 eurokoa zen bitartean; gainera, maniobra-funtsa ere negatiboa zuen. Desoreka hori 2013an zuzendu da.

III.3. UDALAREN ETA TRESNA-ENTEEN 2013ko FINANTZA-EGOERA 2013ko ABENDUAREN 31n.

III.3.1. Udala eta erakunde autonomoak

Ondoren azaltzen ditugun iruzkinak egin dira aurrekontu-izaerako gastutzat hartuta Areacea sozietateari emandako milioi bat euroko mailegua.

Aitortutako betebeharrak 8,09 milioikoak dira; aitortutako eskubideak, berriz, 6,95 milioikoak.

Haien izaerari erreparatuta, gastu arruntek ehuneko 69 egiten dute; kapital-gastuek ehuneko bi, eta finantza-eragiketen gastuek, azkenik, ehuneko 29. Diru-sarrera arruntak diru-sarrera guztien ehuneko 94 dira; diru-sarrera horien ehuneko 29 jasotako transferentzietatik datoz. Ez dago zorpetze-eragiketetatik heldutako gasturik ez eta diru-sarrerarik ere.

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili diren eta nola finantzatu diren Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2012ko eta 2013ko gastuen 100 euroko bakoitza:

Gastuaren izaera	2012	2013	Finantzabidea	2012	2013
Langileak	24	25	Tributu bidezko diru-sarrerak	50	64
Bestelako gastu arruntak	43	44	Transferentziak	49	29
Inbertsioak	33	2	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	1	1
Finantza-aktiboak	0	29	Finantza-aktiboak	0	6
	100	100		100	100

Hona Udalaren 2013rako aurrekontuaren betetzeari buruzko datu ekonomikoak eta 2012koarekiko alderaketa:

Adierazleak eta magnitudeak	2012 ⁽¹⁾	2013 ⁽²⁾	Aldearen %, 13/12
Aitortutako betebeharrak	7.610.146	8.092.007	6
Likidatutako eskubideak	8.468.936	6.953.745	-18
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	5.126.493	5.611.592	9
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	5.126.493	5.610.402	9
Kapital-gastuak (6. eta 7. kapituluak)	2.483.653	132.409	-95
Finantza-eragiketengatiko gastuak (8. eta 9. kapituluak)	0	2.348.006	-
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	6.106.101	6.564.487	8
Tributu bidezko diru-sarrerak (1etik 3ra)	4.230.244	4.418.392	4
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	2.362.835	-10.742	-100
Finantza-eragiketengatiko diru-sarrerak (8. eta 9. kapituluak)	0	400.000	-
Diru-laguntzen mendekotasuna (%)	49	29	
Zerga bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (%)	83	79	
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	858.790	809.744	-6
Aurrekontu-emaizta doitua	782.002	-158.465	-120
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.030.604	1.062.058	3

Adierazleak eta magnitudeak	2012 ⁽¹⁾	2013 ⁽²⁾	Aldearen %, 13/12
Aurrezki gordina	979.608	954.084	-3
Finantza-zama (3.etik 9.era)	0	1.189	-
Aurrezki garbia	979.608	952.895	-3
Zorpetze maila (%)	0	0,02	
Zorpetze muga (%)	16,04	14,53	
Zorpetze-ahalmena (%)	16,04	14,51	
Zor bizia	0	0	
Eratutako abalak	1.500.000	1.500.000	-

(1) Auditatu gabeko ekitaldia

(2) Aurrekontu-gastuen barruan eta, kasua bada, gainerako magnitudeen barruan sartzen da Areacea sozietateari emandako maileguko milioi bateko kopurua.

2013an, Udalak ehuneko sei gehiago gastatu du; diru-sarrerak, berriz, aurreko ekitaldikoak baino ehuneko 18 txikiagoak izan ditu.

Diru-sarreretan, jaitiera handiena izan duen kapituluak, bai termino absolutuetan, bai termino erlatiboetan, kapital-transferentzia eta kapitaleko bestelako diru-sarrerena izan da, ehuneko 100 jaitzi baita; izan ere, 2012an, kapitulu horri 2,4 milioi egiten zuten urbanizazio-kuotak egotzi zitzaizkion; 2013n, soilik aitortu da aurreko urteetako bi urbanizazio-kuotaren itzulketa -10.742 euro-, eta, horrenbestez, aitortutako eskubideak negatiboak dira.

Zeharkako zergek ehuneko 75 egin dute behera, EIOZak 0,24 milioi behera egitearen ondorioz. Aitzitik, zuzeneko zergek ehuneko 20 egin dute gora -hau da, 0,5 milioi-; igoera hori ia guztiz zor zaio JEZaren igoerari -0,46 milioi- eta 2012an iruzur fiskalari aurre egiteko tributu-kontrolako udal plana aplikatuz heldu da.

Halaber, nabarmenezkoa da transferentzia arrunten kapituluak, 4. kapituluak, ehuneko 24 egin duela gora; horren azalpena da, batez ere, Nafarroako zergetako parte-hartzeak gora egin duela -0,12 milioi- eta kapitulu horri izandako uholdeek haur eskoletan eta kirol instalazioetan eragindako kalteei dagokien aseguruaren kalte-ordain¹ bat egotzi zaiola -0,18 milioi-.

Gastuei dagokienez, berriz, langile-gastuek ehuneko 10 egin dute gora -2012ko ekitaldiko erosalmena galtzearen ondoriozko osagarriaren ordaintzarekin justifikatu da- eta ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuek, berriz, ehuneko 11 egin dute gora -igoera hori heldu da, besteak beste, haur eskoletako eta kirol instalazioetako aparteko konponketetatik, uholdeen ondorioz halakoak behar izan baitira-. Inbertsioen kapituluak 2,35 milioi egin du behera, diru-sarreraren kapituluak -7. kapituluak- behera egitearekin bat eta 2012an arloko urbanizazio-obra amaitzearen ondorioz.

Gastuen kapitulan -8. kapituluak-, ikusten da 2,35 milioiko² igoera egon dela: Areacea sozietateari emandako maileguak dira, sozietate horrek dauzkan diruzaintza-arazoak konpontzekoak; diru-sarreraren kapitulu berean, sozietate beraren kreditu-itzulketa bat erregistratu da, 0,4 milioikoa.

Laburbilduz, gastu eta diru-sarrera arruntek ehuneko bederatzi eta ehuneko zortzi egin dute gora, hurrenez hurren. Kapitaleko gastuek ehuneko 95 behera egin dute; izaera bereko diru-sarrerak, berriz, ehuneko 100 egin dute behera. Tributu bidezko diru-sarrerak ehuneko lau handitu dira, eta gastu arrunten ehuneko 79 finantzatu dituzte. Areacea sozietatekiko finantza-eragiketetatik heldu diren gastuek Udalaren guztizko gastuaren ehuneko 29 egiten dute 2013an.

Finantzaz besteko aurrekontu-saldoa 2013an 0,81 milioi positiboa izan da, baina ehuneko sei egin du behera.

Aurrekontu-emaizta doitua 0,16 milioi negatiboa da; aurreko urtean, berriz, 0,78 milioi positiboa izan zen.

Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina 1,06 milioikoa da, eta ehuneko hiru egin du gora 2012koarekin alderatuta.

Nabarmendu behar dugu, halaber, Udalak 2013an bi gordailu egin dituela bi finantza-entitateetan: bata 60.000 euroko epe finkoko ezarpen bat, urtebetekoa, ehuneko 1,25eko urteko interes nominalarekin; bestea, 500.000 eurokoa, hiru hilabeteko epe finkoan, eta ehuneko 1,44ko urteko interes nominalarekin. Gordailu horiek egin dira diruzaintzako aldi baterako gairak kolokatzeko.

Ez du epe luzeko zorrik.

Udalak bermatu du 2011n Areacea sozietateari finantza-entitate batek eman zion 1,5 milioiko mailegu bat, 2031n muga-eguna duena.

¹ Gure iritziz, eragiketa hori zuzeneko egozpena diru-sarreraren 3. kapitulari dagokiona da.

² Kopuru horretan Areacea sozietateari emandako milioi bateko mailegua aintzat hartu da, eta kontuan hartu da, halaber, Udalak aurrekontuz kanpoko eragiketa gisa hartu duela.

III.3.2 Tresna-enteak

Areacea sozietatearen eta Arte Zentroa fundazioaren 2013ko adierazle nagusiak ondoko taulan da-tozenak dira:

2013ko adierazlea	Areacea, SAU	Arte Zentroaren fun-
Ondare garbia	16.134.191	48.362
Kreditu-erakundeekin hartutako epe luzeko zorra	8.798.521	
Kreditu-erakundeekin hartutako epe laburreko zorra	375.791	
Epe laburreko zorrak, taldeko enpresekin	2.349.194	
Bestelako pasibo korrontea	1.458.271	54.278
Ibilgetua eta higiezinetakoinbertsioa	22.852.522	46.977

2013ko adierazlea	Areacea, SAU	Arte Zentroaren fun-
Maniobra-funtsa	2.077.469	1.385
Salmentak/norberaren jarduerarengatikodiru-sarrerak	399.723	478.358
Jasotakodiru-laguntzak		407.000 ⁽¹⁾
Langile-gastuak	77.211	135.015
Ibilgetuaren amortizazioa	733.599	14.377
Finantza-gastuak	392.198	941
Ekitaldikoeimaitza/ekitaldikogaindikina	-828.005	81.007

(1) Nafarroako Gobernuarena

Finantza-egoerei buruzko informazioa eta aurreko adierazleak aztertuta, honakoa nabarmendu behar dugu:

A) Areacea, SAU sozietatea

Sozietateak, 2013ko abenduaren 31n, 16,13 milioi euroko ondare garbi positiboa badu ere, epe laburreko finantza-egoera kezkarria dauka, eta diruzaintzan tentsio handiak dauzka ordainketa-betebeharrei aurre egiteari dagokionez. Tentsio horiek, praktikan, beraiekin ekartzen dute Udalak finantzaketarako funtsak jarri behar izatea.

Kreditu-entitateekiko eta taldeko –Udala– enpresekiko zorpetzea 11,52 milioikoa da; epe laburrean, kopuru horren ehuneko 24 da ia. Zorpetze horren printzipala honela xehakatzen da:

- Kreditu entitateekin.

Kreditu-entitateekiko zorpetzea	Emandako kopurua	Emateko data	Helburua	Kitapen-data	Zor bizia 2013-12-31n
Zenbait finantza-entitate (1) (2)	10.000.000	2006 otsaila	Izotz-pistaren eta arte zentroaren eraikuntza	2007ko abuztua	7.075.687
BBVA (3)	2.000.000	2011 otsaila	Diruzaintzako beharrak	2031 otsaila	1.916.667
Zenbait finantza-entitate (1)	169.597	1. hiruilekoa 2011	Etxebizitzaren erosketak	1. hiruilekoa 2023	79.002

(1) Berme errealak zituzten maileguak.

(2) "Zoru klausularekin" itundutako maileguak, ehuneko 3,75 interes tasarekin; horixe da gaur ordaintzen dena.

(3) Udalak abalaturako mailegua, eta azalera-eskubidea emateko kontratu bat, erosteko aukerarekin, lursailaren gainekoa.

Udalak eta sozietateak aurreko finantza-entitateekin birnegoziatzen ari dira zoru klausula duten maileguak.

- Udalarekin.

Taldeko enpre- sen zorpetzea	Emandako kopurua	Emateko data	Helburua	Kitatzearen data	Zor bizia 2013-12-31n
Udala	400.000	Ira. 2013	Diruzaintzako beharrak	Ira. 2014	400.000
Udala	400.000	2013ko urria	Mailegu baten kitapena	2014ko urria	400.000
Udala	1.000.000	2013ko abendua	Mailegu baten amortizazio partziala	Ira. 2014	1.000.000
Udala	548.006	2013ko abendua	Udalarekiko zorren kitapena	2014ko abendua	548.006

Mailegu horiek hiruhileko euriborra gehi ehuneko 0,95eko diferentziala erreferentzia gisa duen interes-tasa batekin ematen dira, eta guztiek muga-egun teorikoa 2014an dute. Hala eta guztiz ere, lehenengo bi maileguak, bakoitzak 400.000 euro dituztenak, 2018ko abendura arte geroratu dira; 1.000.000 euroko mailegua 2015eko ekainera arte geroratu da; azkenik, 548.006 euroko mailegua partzialki kitatu da, 289.500 euroan, 2014ko abenduaren 30ean, eta zenbatekoaren gainerakoa, 258.506 euro, 2015eko urtarrilaren 2an kitatu dira.

Halaber, 2012an, Foru Ogasunari eskatu zitzaion BEZaren kuota batzuk geroratzeko –printzipala 168.000 eurokoa zen–, eta 203ko abenduaren 31n 32.781 euroko zorra geratzen zen ordaintzeko.

Ibilgetua lursailak eta, funtsean, eraikinek osatzen dute; ondasun horien ustiaketa, gaur egun, sozietatearen diru-iturri garrantzitsuena da.

Jardueratik heldu diren diru-sarrerek 0,4 milioi egiten dute; ustiaketa-gastuek 0,18 milioi egiten dute; amortizazioek, 0,73 milioi eta finantza-gastuek, azkenik, 0,39 milioi.

Ematza 0,83 milioi negatiboa da, nahiz eta 2012arekin alderatuta ehuneko 30 jaitsi den.

Entitatearen finantza-egoera normalizatze aldera, 2010ean, jarduketa plan bat onetsi zen 2011tik 2016ra doan aldirako, behar den likidezia lortzeko eta finantza-zama gutxitzeko. Planean, funtsean, honakoak sartzen ziren: zenbait aktiboren ustiaketa hobekuntza eta mailegu batzuen aurreitazko amortizazioa edo/eta birfinantzatzea³; halaber, aurreikusten zen 2016ra aurreratzea enpresak zeukan erosketa-aukera bat, okupatzen duen orubearren gainekoa; ia bost milioi euro egiten zuen aukera horrek. Ez dago plan horren jarraipenari buruzko txostenik eta, nahiz eta egiazki ezin den ia aktibo bakarra bera ere saldu higiezinaren sektorearen egoeraren ondorioz, enpresarekin negoziatzen jarraitzen da erosketa-aukera aurreratzeari buruz, eta, halaber, finantza-entitateekiko zorpetzea gutxitu da, nahiz eta udalarekiko zor-kokapenak gora egin duen.

2013ko azaroan, Udalaren Osoko Bilkurak aho batez erabaki zuen sozietate hori desegiteko prozedura hastea. Erabaki horrekin batera, udalaren kontu-hartzailetzaren txosten bat badago, non, sozietatearen finantza-egoera aztertu ondoren, eta xede sozialaren agorpena zela eta, ondorioztatzen baita sozietatea desegiteari ekin behar zaiola, modu antolatuan, eta hura azkendu beharra dagoela, udal ondarea zaintze aldera. Ez dago jasota agindu hori bete izana.

B) Arte Garaikideko Zentroa Fundazioa.

Fundazioaren finantza-egoerari dagokionez, honakoa esan behar dugu:

- Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzekiko finantza-mendekotasunari dagokionez⁴, jada diru-sarreraren ehuneko 85 da 2013an, eta gastuen gutxitzakoa –397.352 euro– estaltzera iristen da.

- 2012ko kontuei buruzko auditoria-txostenean, Fundazioaren ondare-desorekari buruzko lerrokada bat bazegoen: 232.426 euroko ondare garbi negatiboa zuen, bai eta maniobra-funts negatiboa

³ Bereziki, zoru-klausula dutenak, zeren eta ordaintzen ari den interes-tasa merkatuan egun dagoena baino handiagoa baita.

⁴ 2010ean, Udalaren Osoko Bilkurak Nafarroako Gobernuaren Kultura Departamentuarekiko lankidetzahitzarmena onetsi zuen, Museoa kudeatzeko, eta Departamentuak hartu zuen bere gain haren finantzaketa.

ere. Ondare-egoera berrezartzeko, Areacea sozietatearekiko zorra erregularizatu zen, museoaren erakinaren alokairuari⁵ zegokiona –211.306 euro–, eta, bestalde, Nafarroako Gobernuaren 2013ko diru-laguntzan aukera eman zen, aparteko izaeraz, haren zati bat aplikatzeko aurreko ekitaldiko defizita estaltzeko.

- 2013ko gaidikina aplikatu da aurreko ekitaldietako gaidikin negatiboak –64.150 euro–, eta gainerakoa –16.857 euro– zuzkiduren-funtserako.

III.4. AURREKONTU-EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA.

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa aplikatzearen eraginetarako, SEC'95 Kontabilitate Nazionalen irizpideak jarraituta, honako entekak jotzen dira Uharteko Udalaren administrazio publikotzat edo bateratze-perimetrotzat: udala bera, kirolaren eta musikaren erakunde autonomoak eta Arte Garaikideko Zentroa fundazioa.

Uharteko Udalaren administrazio publikotzat jotzen diren entitateen multzoak, 2013ko ekitaldian, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak bete ditu. Hartara,

- 734.940 euroko superabit bat edo finantzatzeko ahalmen bat izan dute, honako taulan adierazi bezala:

Finantzatzeko ahalmena	2013
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	903.708
Zalantzazko diru-bilketarengatik doikuntza	-168.768
Finantzatzeko ahalmena	734.940

- Gastuaren araua bete da, zeren eta 2013ko gastu zenbakarri likidatuak ez baititu legezko muga kuantitatiboak gaititu, aurreko ekitaldiarekiko igoyerari dagokionez. Hona xehetasunak:

Gastuaren araua	2013
2012ko gastu zenbakarria (aitortutako betebeharrak)	7.068.279
Gastu zenbakarria, ehuneko 1,7ko igoyerarekin, 2013rako	7.188.440
2013ko gastu zenbakarria (aitortutako betebeharrak)	5.207.942

• Zorren muga. Udalaren eta haren fundazioaren kontabilitateko egoera-orrien arabera, ez dute finantza-zorpetzerik. Hala eta guztiz ere, aurrekontu-egonkortasunari buruzko araudian jaso bezala, halakotzat jo beharko litzateke Udalak Areacea sozietateak lortutako 1,5 milioi euroko mailegu baterako abal edo bermearengatik hartutako arriskua. Berme hori sartuz gero, zorpetze-maila diru-sarrera arrunten ehuneko 22,85 da; ehuneko hori legedi indardunean adierazitako ehuneko 110aren azpitik dago.

• Merkataritza-zorra. Hornitzaileentzako epea betetzeari dagokionez, ezin dugu iritzirik eman, zeren eta Udalaren kontabilitate-erregistroek ez baitute 2013an jasotzen faktura edo dokumentua kontabilitate-zirkuituan sartzeko dataren erreferentzia; 2014ko amaieran, fakturen erregistrorako aplikazio informatiko bat ezarri da, epe hori kontrolatzeko bidea emanen duena. Bestalde, ez dago jasota berandutza interesengatik gasturik, hornitzaileei ordaintzeko legezko epea ez-betetzearen ondoriozkorik.

Bestalde, merkatuko unitateetarako, erregulazioak aipatzen du egonkortasun arauak beteko direla galeren eta irabazien kontuko saldoa orekatua edo positiboa denean. Areacearen kasuan, ez da betekizun hori betetzen, zeren eta 828.005 euroko emaitza negatiboa baitu. Hori dela eta, egoera hori bideratzea bideratuko duen plan bat onetsi beharra dago.

Azkenik esan behar dugu ezen, 2015ean administrazio publikoen kontuak egiteko metodologia berria –SEC'2010– onestearekin, jotzen da administrazio batek tresna-ente baten gaineko kontrola duela, eta, horrenbestez, aurrekontu-egonkortasunaren eraginetarako finkatuko dela, ente horren gaineko kontrol efektiboa duenean, kontzeptu horren barruan sartuta bai jardueraren finantzaketa, bai haren zuzendaritza-langileen izendapena edo kargutik kentzea, bai eta administrazio-organoen gaineko kontrola ere. Egoera horretan egon liteke Areacea sozietatea; eta horri gehituz gero jada aipatu-

⁵ 2010etik, doakoa da Areaceak eraikin-museoa erabiltzeko lagapena.

tako ehuneko 50eko araua, hurrengo ekitaldietan sozietatea Uharteko Udalaren administrazio publikoaren sektorearen barruan sartu beharko litzateke; integrazio horrek funtsezko eragina izanen du aurreko zerga-arauen betetzean, bereziki zorpetze-mugari dagokionez.

III.5. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA.

Ganbera honen aurreko txostenari dagokionez –2007koa da txosten hori– honakoetara zuzendutako gomendio-multzo bat aplikatu da:

- *Aurkezpena eta kontabilitate-zorroztasuna hobetzea Udalaren kontu orokorreko kontabilitate-egoera-orriak lantzerakoan.*
- *Legezkotasunaren arloko salbuespenei konponbidea ematea, langileen eta administrazio-kontratazioaren esparruetan.*
- *Legeak betetzearen eta aroko ekonomikoaren barne-kontrolako organoen jarduketak indartzea.*
- *Bi sozietate mistoen eta fundazio baten azkentzea.*

Oraindik betetzeke daude, txosten honen VI. atalean esaten den moduan, gomendio garrantzitsu hauek:

- *Hirigintzako udal plan berri bat onestea.*
- *Udal-ondasunen inbentarioaren eguneratzea burutzea.*
- *Lurzoruaren udal-ondarearen erregistro berariazkoa sortzea.*

III.6. AMAIERAKO ONDORIOA EDO LABURPENA

Horrenbestez, amaierako laburpen moduan, Uharteko Udalak, bere tresna-enteak kontuan hartu gabe, finantza-egoera saneatua dauka, eta egoki erantzuten dio egungo egoera ekonomikoari.

Hala eta guztiz ere, higiezin jardueraren gelditzeak, Areacea sozietatearen bitartez egindako inbertsio garrantzitsuek –30 milioi inguru egiten dutenak–, sozietate horrek finantzaketarako hartutako zorpetzeak eta inbertsioetako batzuen errentagarritasun ekonomiko behar baino txikiagoek beraiekin ekarri dute sozietatea finantza-egoera oso ahulean egotea, bereziki epe laburrean, eta zorpetze-bolumen handia edukitzea, diruzaintzako tentsio handiekin. Horrek guztiak exijitzen du Udalak berak funtsak jartzea, bere ondarea babeste aldera.

Egoera horrek eskatzen du urgentziatzko neurriak hartzea, hari konponbidea emateko. Ildo horretatik, sozietate horrek bere ordainketa-betebeharrei aurre egiteko behar adinako baliabideak sortzeko daukan ezintasuna dela-eta, badirudi egokiena dela sozietatearen desegite ordenatua, Udalak berak haren aktiboak eta pasiboak bere gain hartuta. Logikoa denez, Udalak haiek bere gain hartzeak eragin negatiboa izanen du Udalaren finantza-egoeran, bereziki zorpetzearen bolumena dela eta.

Bestalde, Arte Garaikideko Zentroa fundazioaren bideragarritasun ekonomikoa guztiz dago Nafarroako Gobernuaren ekarpenen menpe –gobernua bera da fundazioa kudeatzen duena–, eta horrek, aurrekontu-murrizketen egungo egoeran, zalantza handiak dakartza haren jardueraren jarraitutasunari eta haren ondasunen ustiaketari dagokienez.

Azken batean, Udalak, bere kaudimen finantzarioa eta udal ondarearen defentsa bermatzeko, urgentziaz birplanteatu beharra dauka egungo egituratzea eta tresna-enteen finantzaketa, eta helburu horiek bermatzeko konponbide onenak bilatu behar ditu. Horien artean, adierazi behar ditugu bai finantza-entitateekiko maileguen balizko birfinantzatzea, bai enpresa batek lursail batzuk erosteko aukeraren aurreratzea, bai eta egokitze jotzen den finantza- edo/eta ondare-izaerako beste edozein formula ere.

Halaber, bi patronatuek erakunde autonomo gisa duten egituratzea aztertu beharra dago, zeren eta, gaur den egunean, Udalak bere baliabide propioekin hartzen baitu bere gain haien kudeaketaren guztizkoa. Egoera horrek udal jarduera zailtzen du, eta arlo batzuetan garatu beharreko jardura bikoitzen du.

IV. 2013ko KONTABILITATEKO EGOERA-ORRIEN LABURPENA

Atal honetan, kontu orokorrean jasotako kontabilitateko egoera-orrien laburpen bat ematen dugu: batetik Udalarena eta bere erakunde autonomo bateratuena, eta, bestetik, Areacea udal sozietatearena.

IV.1 UDALAREN 2013ko KONTU OROKORRA

Oharra: egoera-orri horiek kontu orokorrak islatu bezala aurkezten dira, hau da, aurrekontu-eragiketatzat hartu gabe Areacea sozietateari milioi bat euroko mailegua eman izana.

IV.1.1. Udalaren eta erakunde autonomoen 2013ko betetze bateratuaren egoera-orri laburtua

Gastuak

Kapitulua	Izena	Aitortutako betebeharrak
1	Langile-gastuak	2.049.464
2	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	3.087.693
3	Finantza-gastuak	1.189
4	Transferentzia arruntak	473.245
6	Inbertsio errealak	132.409
8	Finantza-aktiboak	1.348.006
Guztira		7.092.006

Diru-sarrerak

Kapitulua	Izena	Aitortutako eskubideak
1	Zuzeneko zergak	2.961.777
2	Zeharkako zergak	79.413
3	Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.377.202
4	Transferentzia arruntak	2.051.731
5	Ondarearen bidezko diru-sarrerak eta herri-	94.363
6	Inbertsio errealak besterentzea	0
7	Kapital transferentziak eta bestelako kapital diru-sarrerak	-10.742
8	Finantza-aktiboak	400.000
Guztira		6.953.744

IV.1.2. 2013ko emaitza bateratua

Kontzeptua	2012ko ekitaldia	2013ko ekitaldia
Aitortutako eskubide garbiak	8.468.936	6.953.745
Aitortutako betebeharrak	7.610.146	7.092.006
Aurrekontu-emaitza	858.790	-138.261
Doikuntzak		
Finantzaketaren desbideratze positiboa	87.258	13.069
Finantzaketaren desbideratze negatiboa	0	44.859
Diruzaintza-erakinarekin finantzatutako gastuak	10.469	948.006
Aurrekontu-emaitza doitua	782.001	841.535

IV.1.3. Diruzaintza-gerakin bateratuaren egoera-orria 2013ko abenduaren 31n

Kontzeptua	2012ko ekitaldia	2013ko ekitaldia
+ Kobratzeko dauden eskubideak	685.591	1.895.286
(+) Diru-sarreraren aurrekontua Aurtengo ekitaldia	1.020.879	732.402
(+) Diru-sarreraren aurrekontua Itxitako ekitaldiak	1.841.976	1.208.433
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	227.213	1.620.350
+ Ordainketen itzulketak	2.049	50
- Bilketa zaileko eskubideak	1.727.351	996.073
- Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	679.174	669.876
- Ordaintzeko dauden betebeharrak	905.419	948.601
+ Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	400.613	441.364
+ Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	25.828	2.542
+ Diru-sarreraren itzulketak	6078	2.591
- Aplikatzeko dauden gastuak	2.884	656
+ Aurrekontuz kanpoko gastuak	475.784	502.760
+ Diruzaintzako funts likidoak	2.058.584	708.116
+ Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	0	0
Diruzaintza-gerakina, guztira	1.833.755	1.654.800
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa duten gastuak direla-eta	98.655	77.724
Diruzaintza-gerakina, baliabide atxikiak direla-eta	709.496	515.018
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1030.604	1.062.058

IV.1.4. Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2013ko abenduaren 31ko egoerari buruzko balantze bateratua.

Aktiboa

Deskribapena	2013
A Ibilgetua	70.584.413
1 Ibilgetu materiala	23.942.030
2 Ibilgetu ez-materiala	125.823
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	43.632.543
5 Herri-ondasunak	0
6 Finantza-ibilgetua	2.884.017
C Zirkulatzaila	4.295.647
8 Zordunak	3.519.740
9 Finantza-kontuak	717.091
11 Aplikatzeko dauden emaitzak	58.816
Aktiboa, guztira	74.880.060

Pasiboa

Deskribapena	2013
A Funts berekiak	73.302.421
1 Ondarea eta erreserbak	59.240.307
2 Aurreko ekitaldietako emaitza ekonomikoa	4.468.638
3 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa	198.333
4 Kapitaleko diru-laguntzak	9.395.143
C Epe laburreko hartzekodunak	1.577.639
5 Epe laburreko zorrak	907.763
6 Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	669.876
Pasiboa, guztira	74.880.060

IV.2 AREACEA, SAU SOZIJETATEAREN URTEKO KONTUAK

IV.2.1. 2013ko abenduaren 31ko egoera-balantzea

Aktiboa

	2012	2013
A. Aktibo ez-korrontea	23.589.721	22.855.244
Ibilgetu materiala	1.519.436	1.387.505
Ondasun higiezinetakoko inbertsioak	22.066.684	21.465.016
Taldeko enpresetako eta elkartuetako epe luzeko inbertsioak.	0	2.400
Epe luzeko finantza-inbertsioak (fidantzak)	3.399	120
Zerga geroratuaren bidezko aktiboak	202	202
B. Aktibo korrontea	6.528.654	6.260.725
Izakinak	6.005.779	6.005.779
Merkataritza-zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	84.524	58.880
Taldeko enpresetan eta elkartuetan epe laburreko inbertsioak.	60.695	60.696
Epe laburreko finantza-inbertsioak	868	868
Epe laburreko ekintzak	5.178	7.332
Eskudirua eta bestelako aktibo likidoak	371.608	127.169
Aktiboa, guztira	30.118.375	29.115.968

Ondare garbia eta pasiboa

	2012	2013
A. Ondare garbia	17.043.916	16.134.191
Funts berekiak	15.229.761	14.401.756
Kapitala	1.502.530	1.502.530
Erreserbak	14.908.983	14.495.067
Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak		-767.836
Ekitaldiko emaitza	-1.181.753	-828.005
Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	1.814.155	1.732.435
B. Pasibo ez-korrontea	10.129.621	8.798.521
Epe luzeko zorrak	10.129.621	8.798.521
C. Pasibo korrontea	2.944.839	4.183.256
Epe laburreko zorrak	511.629	378.791
Taldeko enprekin eta elkartuekin epe laburreko zorrak	400.000	2.349.194
Merkataritza-hartzekodunak eta ordaintzeko dauden beste kontu batzuk	2.033.210	1.455.270
Pasiboa, guztira	30.118.375	29.115.968

IV.2.2. Galeren eta irabazien kontua 2013an

	2012	2013
Negozio-zifraren zenbateko garbia	14.663.741	35.659
Produktu bukatuen eta fabrikatzen ari direnen izakinen aldea	-13.797.870	
Enpresak, bere aktiborako, egindako lanak		
Hornidurak	-629.350	
Bestelako ustiatzeengatiko diru-sarrerak	407.044	364.063
Langile-gastuak	-84.190	-77.210
Bestelako ustiatze-gastuak	-541.594	-102.881
Ibilgetuaren amortizazioa	-740.460	-733.599
Ibilgetu ez-finantzarioko diru-laguntzen egozpena eta beste batzuk	81.719	81.719
Ibilgetua besterentzetik heldu den emaitza eta narriadura	-37.669	
Beste emaitza batzuk	1.267	-270
A. Ustiatzearen emaitza	-677.316	-432.519
Diru-sarrera finantzarioak	26.622	5
Finantza-gastuak	-534.337	-392.198
Tresna finantzarioetako balio-aldaketa arrazoizkoa		
Aldaketako aldea		
Tresna finantzarioak besterentzetik heldu den emaitza eta narriadura	3.278	-3.292
B. Emaitza finantzarioa	-504.436	-395.486
C. Zerga aurreko emaitzak	-1.181.753	-828.005
Mozkinen gaineko zerga		
D. Ekitaldiko emaitza	-1.181.753	-828.005

V. EGINDAKO LANAREN AZTERKETA

Ondotik, arlo batzuetan egindako lanaren azterketa xehea ematen dugu, eta, Ganberaren iritziz, Udalak eta bere erakunde autonomoek beren antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko iruzkin, ondorio eta gomendio nagusiak emanen ditugu.

V.1. ALDERDI OROKORRAK

- Bai aurrekontuak, bai 2013ko kontu orokorra lege ezarritako epeak gaindituta onetsi ditu Osoko Bilkurak.

- Kontu orokorrak biltzen duen aurrekontu-likidazio bateratua mugatuta dago aitortutako betebeharrak eta eskubide guztien kapituluko exekuziora, informazioaren gainerakoa, egoera horretarako legedi indardunak ezarritakoa, bildu gabe.

- Balantze bateratua aplikazio informatikotik zuzenean lortzen da, bere saldoen azterketa- eta berrikuspen-prozesurik egin gabe. Ez da erantsen emaitzen kontu bateratua.

- Udalaren eta haren erakunde autonomoen ondasunen inbentarioa laurogeita hamarrekota hamarrekota kadaren amaieran egin zen eta ez da gaurkotu. Badago higiezin zerrenda bat, katastroko informaziotik lortutakoa.

- Udalaren balantzearen barruan, Buldain fundazioaren ekarpen bat jasotzen da, 30.000 eurokoa. Gaur egun deseginda eta azkenduta dago fundazio hori. Bestalde, ez Udalaren balantzean, ez eta Areacea sozietatearenean, ez da ageri Euskal Jai Berri fundazioaren sorrerako zuzkidurarako ekarpena, 20.000 eurokoa. Ekarpen hori 2004an egin zen.

- Ez da aurkitu 2013ko fakturarik, zenbateko adierazgarriarekin, 201eko aurrekontuari egotzi zaionik.

- Ez da berandutza-interesik ordaindu hornitzaileei legeko epean ordaintzeko betebeharrak ez betetzeagatik.

- Gorabeherak. Ebazteko dauden errekurtsioak udal idazkaritzan zentralizatuta daude, eta, daukan zenbatekoa dela eta, arkitekto baten minuta nabarmendu beharra dago -31.560 euro gehi legeko interesak-, bai eta enpresa baten ordainketa-erreklaazioa ere -374.077 euro gehi interesak-. Hala eta guztiz ere, azken horri dagokionez, 2014ko azaroan Nafarroako Probintzia Auzitegiaren epai bat egin da, zeinak asmo hori ezetsi baitu; epai horren aurka, ordea, errekurtsioa aurkez daiteke.

Gure gomendioak:

- *Aurrekontuak eta kontu orokorra indarrean den legediak ezarritako epeetan egin eta onestea, kudeaketarako oinarritzko tresna izan daitezen.*

- *Kontu orokorrean kontabilitateko eta aurrekontuko egoera-orriak aurkeztea, legedi indardunaren adierazitako informazioarekin eta egiturekin.*

- *Balantze-masen kontabilitate-saldoak berrikusi eta, kasua bada, erregularizatzea.*

- *Udal-ondasunen inbentarioa egitea, eguneratze eta kontabilitate-jarraipen etengabekoak bideratuko dituzten prozedurak diseinatuta.*

V.2. UDALEKO LANGILEAK

Udaleko langile-gastua 1,67 milioi eurokoa da, eta betetze maila ehuneko 99 da. 2013an sortutako gastu guztien ehuneko 28 da hori.

2012ko ekitaldiari dagokionez, kapitulu hau ehuneko 10 handitu da, honako xehetasunen arabera:

Langile-gastuak	2012ko gastua	2013ko gastua	Aldearen ehunekoa
Goi-karguak	30.818	35.560	15
Funtzionarioak	365.109	428.260	17
Lan-kontratudun finkoak	180.715	217.080	20
Aldi baterako lan-kontratudunak	416.376	464.804	12
Kuota sozialak eta bestelako gastu sozialak	531.373	525.882	-1
1. kapitulua, guztira	1.524.391	1.671.586	10

Ehuneko 10eko igoera orokorraren justifikazioa da, funtsean, 2013an udal langile publikoek, ekitaldiko bi aparteko soldatez gainera, osagarri bat jaso zutela 2012ko eros-ahalmenaren galera zela-eta – 70.993 euro, guztira–, abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legearen babesean; hain zuzen ere, foru lege horrek aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen du, 2012rako eraginarekin, eros-ahalmenaren galera dela-eta. Osagarri horren eragina kontuan hartzen ez badugu, 2013ko langile-gastuak gutxi aldatu dira aurreko ekitaldikoaren aldean.

Gai horri dagokionez, ganbera honek uste du foru lege horrek 2013ko urtarrilaren 3an hartu zuen indarra, NAO-n argitaratu eta biharamunean, eta horrek zalantzak planteatu izan ditu 2012rako aurreikusten dituen neurrien baliozkotasunari buruz. Hori dela eta, “2013an foru lege hori aplikatuz Nafarroako toki entitate batzuek hartutako neurrien segurtasun juridikoa bermatzeko”, Nafarroako Parlamentuak uztailaren 2ko 25/2013 Foru legea onetsi zuen, zeinak 28/2012 Foru Legea aldatzen baitu, 2013ko abuztuaren 31ra arte luzatzen baitu Nafarroako administrazio publikoek beren langileei ordaineko osagarria pagatzeko. Foru lege horren aurka, uztailaren 30ean, konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioa aurkeztu zen, Konstituzio Auzitegiak onartutakoa, eta auzitegi horrek foru lege haren aplikazioa bertan behera utzi zuen 2013ko irailaren 14an. Kontraesanean dagoen araudia eta aurkeztutako errekurtsioak direla eta, jotzen dugu egoera honetarako behin betiko konponbidea instantzia judicial eskudunek hartzen dituzten erabakien menpe egonen dela.

Udalaren 2013rako plantilla organikoak 38 lanpostu aurreikusten ditu; horietatik, 19 finkoak dira, bi kontratu mugagabea dutenak eta 17 hutsik daude; hutsik dauden lanpostu horietatik, 14 lanpostu aldi baterako beteta daude.

Udalaren Osoko Bilkurak, 2013ko ekainaren 27ko erabakiz, deliberatu zuen lan kontratupeko langile finkoak Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan sartzeko prozesua hastea, 2013ko maiatzaren 29ko 19/2013 Foru Legean ezarritakoaren babesean. Prozesu horren emaitza gisa, guztira lan-kontratupeko zazpi langile funtzionario bihurtu ziren. Horri dagokionez, esan beharra daukagu Konstituzio Auzitegiak 2014ko ekainean foru lege hori deuseztatu duela.

2013ko abenduaren 31n, 35 pertsonak lan egiten dute Udalean. Aurreko urteko kopuru bera da. Langile horiek honako arlo funtzionalei atxikitzen zaizkie:

Arloak	Kopurua
Zerbitzu orokorrak eta ekonomikoak	9
Aguazilak	7
Mantentze-lanak	7
Lorezaintza	5
Garbiketa	2
Ikastetxea	1
Kultura eta euskara	1
Gazteria	3
Guztira	35

2013ko maiatzean, 2013ko enplegu eskaintza publikoa argitaratu zen, merezimendu-lehiaketaren bidezko igoera-txandako bost lanposturekin eta oposizio-lehiaketa bidezko aldi baterako kontratazioaren peko lanpostu batekin. 2014ra arte, ez zen igoera-txandako lanposturik deitu, eta izendapena 2014ko maiatza eta ekaina bitarte egin zen. Aldi baterako kontrataziorako lanpostua, zerbitzu aniztako, deitu baina eman gabe gelditu zen; deialdi berri bat egin beharra dago orain.

Udalaren eta erakunde autonomoen funtzionarioen eta lan-kontratupeko langileen lan baldintzak 2011n onetsitako bi hitzarmenetan daude araututa, eta haien hasierako indarraldia 2010eko eta 2011ko ekitaldietarako zen nahiz eta indarrean jarraitu beharko zuten hitzarmen berriak sinatu bitarte.

Zinegotziei dagokienez, adierazi beharra daukagu alkateak arduraldi eskusiboko araubidea duela. Gainerako hautetsiei osoko bilkura eta batzordeetarako joateagatiko dietak ordaintzen zaizkie; dieta horiek, 2013an, 18.610 euroko gastua egin dute guztira. Bertaratzeen kontrolerako prozedura baten bidez justifikatzen dira dieta horiek. Halaber, udal taldeek ordainsari batzuk jasotzen dituzte, zinegotzi kopuruaren arabera; ekitaldi honetan, 9.700 euro egin dute ordainsari horiek.

Langile-gastuen lagin bat aztertuta, honako ondorioak atera ditugu: oro har, langile-gastuak behar bezala kontabilizatuta daude; ordaindu diren lansariak betetako lanposturako erabakitakoak dira; ordainsari horiek 2013an izoztu dira, eta egindako atxikipenak zuzenak dira.

Halaber, aipatu behar dugu nomina, gizarte-aseguru eta atxikipenen kudeaketa kanpoko aholkularitza-enpresa batek egiten duela. 2013an, 10.851 kostua izan du zerbitzu horrek. Kudeaketa-molde horrek berarekin dakar udal zerbitzu guztietatik berrikuspen eta kontrol exhaustibo eta sistematikoa egitea.

Gomendatzen dugu kanpoko zerbitzuen formularen erabilera aztertzeko, udal langileen nominaren kudeaketari dagokionez.

V.3. UDALAREN ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN EGINDAKO GASTUA

Udalaren ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuek gora egin dute 2013an 2,10 milioi eurokoak izateraino. Ehuneko 94 betetze-maila izan dute, eta ekitaldiko gastu guztien ehuneko 35 egiten dute.

2012arekin alderatuta, kapitulu honen gastuak ehuneko zazpi egin du gora. Hona xehetasunak:

Deskribapena	2012ko gastua	2013ko gastua	Aldearen ehunekoa
Konponketak, mantentze-lana eta kontserbazioa	206.032	409.260	50
Materiala, hornidurak eta beste	1.725.450	1.665.911	-4
Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak	18.188	19.036	4
2. kapituluko gastuak, guztira	1.949.670	2.094.207	7

Konponketen igoera justifikatzen da "Miraballesko lubetaren" garbiketarengatik eta tratamenduagatik; izan ere, 106.862 euro kostua izan du.

Materialaren eta horniduren barruan, 0 eta 3 urte arteko udal eskolaren kudeaketa sartzen da, zeinak 317.498 euroko kostua izan baitu. Kapituluaren gastuaren ehuneko 15 egin du.

2013ko betetze-oinarriek gastu-prozeduraren erregulazio bat biltzen dute, non betetzea bermatu behar duten baldintzak eta dokumentuak jasotzen baitira.

Kapituluko gastuaren ehuneko 26 egiten duten honako kontusailak aztertu dira:

Gastuak	Zenbatekoa
Aholkularitza juridikoa	14.346
Bestelako peritu-lan eta aholkularitza-lanak	19.448
Otik 3 urtera bitarteko haur eskolen kudeaketa	317.498
Kultur etxeko zerbitzuak	105.474
Anaitasun festa	93.259

Lagin bat aztertuta, egiaztatu da gastu horiek behar diren fakturekin edo/eta kontratuekin justifikatuta daudela, egoki kontabilizatu direla eta aplikatzekoa den araudia arrazoiz errespetatu dela. Alabaina, honakoak azpimarratu nahi ditugu:

- Aholkularitza juridiko batekiko kontratazioa, eskaintzak aurrez eskatuta, Alkatetzaren 1999ko erabakiaz egin zen –kasuko kontratua formalizatu gabe–, eta gaur arte luzatu da, kontrataziori buruzko araudian ezarritako mugak zabal gaindituta.

- Haur eskolen kudeaketa 2010ean sinatutako kontratu batean araututa dago, 2014ra arteko luzapenarekin. Gaur egun, Udalaren kontu-hartzaitza esleipen-hartzaileak aurkeztutako ziurtagiri eta likidazioak berrikusten ari da. 2013an, Nafarroako Gobernutik 180.552 euroko diru-sarrerak jaso ziren. 2014ko abuztuan, kudeaketa-lan horietarako beste esleipen bat egin zen, baina lizitatzailer batek Nafarroako Kontratu Publikoetarako Administrazio Auzitegian salatu zuen; azkenean, hautapen-prozesu hori auzitegi horren 2014ko urriko erabaki batez deuseztatu zen.

- Hornitzaileei ordaintzeko legezko epea ez da beti bete izan.

Gure gomendioak:

- *Administrazio publikoaren arloan indarrean dauden arauak aplikatzea.*
- *Esleipen-hartzaileak haur-eskolen kudeaketa dela-eta aurkeztutako ziurtagiri eta likidazioak berrikusteko prozesua amaitzea.*
- *Segurtatzea hornitzaileei kasuko faktura aurkeztu eta 30 eguneko epean ordaintzen zaiela.*

V.4. UDALAREN TRANSFERENTZIA ARRUNTENGATIKO GASTUAK

Gastu horiek 821.817 euro egin dute, eta betetze-maila % 94koa izan da.

2012arekin alderatuta, ehuneko zazpi egin dute gora, hurrengo taulan ikusten den bezala.

Deskribapena	2012ko gastua	2013ko gastua	Aldearen ehuneko
Toki entitatearen erakunde autonomoi	365.236	422.500	16
Mankomunitateei	140.913	141.031	
Enpresa pribatuei eta beste entitate batzuei	53.088	67.835	28
Familiei	1.543	9.541	518
Irabazi-asmorik gabeko erakundeei	197.936	170.418	-14
Beste transferentzia batzuk	10.300	10.492	2
4. kapituluko gastuak, guztira	769.016	821.817	7

2012arekin alderatuta, nabarmentzekoa da patronatuei egindako ekarpenek ehuneko 16 egin dutela gora eta enpresa pribatuentzako eta beste entitate batzuentzako ekarpenek ere ehuneko 28 egin dutela gora; jaitsiera handiena irabazi asmorik gabeko erakundeetan ikusten da, ezereen eta 2013an Buldain Fundazioari ez baitzaio inongo zenbatekorik eman.

Honako hauek dira 2013an emandako diru-laguntza garrantzitsuenak:

Entitate onuraduna	Zenbatekoa
Udalaren Kirol Patronatua	290.000
Udalaren Musika Patronatua	132.500
Gizarte zerbitzuen mankomunitatea	141.030
Eskualdeko garraioa	139.184
Kultur talde eta jardueretarako diru-laguntzak	35.050
Elkartasunezko baratzeetarako diru-laguntzak	30.485
Talde politikoei egindako transferentziak	9.700

Udalak, 2011ko ekitalditik, diru-laguntzak emateko irizpideak eta prozedura arautzen dituen ordenantza orokor bat badauka. Halaber, enplegua sustatzeko eta elkartasunezko baratzeetarako enpresentzako laguntzak arautzeko berriazko ordenantzak badauzka. Urtero, diru-laguntzetarako behar diren deialdiak egiten dira eta, kasua bada, hitzarmenak sinatzen dira.

Kultur taldeei, kultur jardueri eta talde politikoei emandako laguntzak berrikusi dira, eta ondorioztatu da ezen, oro har, haien izapidetzea, kontabilizatzea eta justifikazioa egokiak izan direla.

Gainera, erakunde autonomoetarako diru-laguntzak bateratu dira, eta Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari egindako ekarpenen justifikazioa aztertu da. Azken horri dagokionez, esan behar dugu kuantifikazioa soilik aipatutako Mankomunitateak aurkezten duen urteko aurrekontuaren arabera egiten dela, eta udal zerbitzuek ez dutela aurrekontu horien likidazioari buruzko informaziorik.

V.5. UDALAREN INBERTSIOAK

Udalaren inbertsioek 130.854 euro egin dute, eta betetze-maila % 60koa izan da. 2012rekin alderatuta, ehuneko 95 egin dute behera; hau da, 2,35 milioi gutxiago daude.

Honako gastu-kontusailak aztertu dira –kapituluko gastuen ehuneko 47 egiten dute–:

Inbertsioak	Zenbatekoa
Aguazilen ibilgailuak	24.638
Kirol pisten konponketa	19.347
Ugarramendi instalazioak hobetzea	17.960

Egindako azterketatik ondorioztatzen da gastuak egoki izapidetu, kontabilizatu eta justifikatu direla. Hala eta guztiz ere, hornitzaileei ordaintzeko legezko epea ez da beti bete izan.

V.6. UDALAREN AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK.

2013ko ekitaldian aitortutako eskubideak 5,98 milioi eurokoak izan dira, eta betetze-maila ehuneko 94koa. Diru-sarrera horietatik, ehuneko 89 kobratu da.

Beren izaerari erreparatuta, ehuneko 93 eragiketa arrunten bidezko diru-sarrerari dagozkie. Horien artean, tributuen bidezko diru-sarrerak (3,61 milioi eurokoak) eta transferentzia arruntak (1,9 milioi eurokoak) nabarmentzen dira.

Udalak ez du diru-sarrerarik jaso 2013ko hirigintza-eragiketen ondorioz. Hala eta guztiz ere, 7. kapituluak 10.742 euroko saldo negatiboa dauka, aurreko urteetako urbanizazio-kuoten itzulketaren ondorioz.

2012. urtearen aldean, aitortutako eskubideak ehuneko 21 murriztu dira. Hona zehatz-mehatz:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak		Aldea (%) 2013/2012
	2012	2013	
1. Zuzeneko zergak	2.460.350	2.961.777	20
2. Zeharkako zergak	320.695	79.413	-75
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	628.760	565.430	-10
4. Transferentzia arruntak	1.710.144	1.895.762	11
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	120.536	88.062	-27
<i>Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)</i>	<i>5.240.485</i>	<i>5.590.444</i>	<i>7</i>
6. Inbertsioen besterentzea	0	0	0
7. Kapital-transferentziak eta bestelako kapital-sarrerak	2.362.835	-10.742	-100
<i>Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)</i>	<i>2.362.835</i>	<i>-10.742</i>	<i>-100</i>
8. Finantza-aktiboak	0	400.000	0
9. Finantza-pasiboak	0	0	0
<i>Finantza-eragiketen diru-sarrerak (8 eta 9)</i>	<i>0</i>	<i>400.000</i>	<i>0</i>
Diru-sarrerak, guztira	7.603.321	5.979.702	-21

Diru-sarreraren igoera izan duten kapituluak izan dira zuzeneko zergena –JEZaren eta plusbalioaren igoera dela-eta– eta transferentzia arruntena –Toki Ogasunen Funtsaren igoerarengatik eta uholdeek eragindako kalteetarako aseguruaren kalte-ordainarengatik–. Halaber, 8. kapituluak, finantza-aktiboenak, egin du gora, aurreko urtean Areacea enpresa publikoari emandako epe laburreko mailegu baten itzulketa dela eta.

Nabarmentzen da kapital-transferentzien eta kapitaleko bestelako diru-sarreraren kapituluak jaitzi direla, zeren eta 2013an ez baita urbanizazio-kuotarik igorri, eta 2012an diru-sarrera ia guztiak kontzeptu horretakoak baitziren. EIOZak ehuneko 75 egin du behera, obretan jarduera txikiagoa egon delako, eta ondare bidezko diru-sarreraren kapituluak, bosgarrenak, ehuneko 27 egin du behera lursailen alokairurako kontusaila txikiagoa delako, zeren eta 2012an, kontzeptu hori dela eta, aurreko urteetako atzerapenak aitortu baitziren. Azkenik, ehuneko 10 egin du behera tasen kapituluak, batez ere irekizko lizentziak eta hirigintzakoak gutxitu direlako.

Ondare bidezko diru-sarreraren barruan, aurreko lerrokadan adierazitakoaz gainera, adierazi behar dugu Areaceari emandako maileguen interesak sartzen direla, 4.274 eurokoak, zeinak 400.000 euroko bina maileguri baitagozkie, 2012ko martxoan eta 2013ko irailean emanak. Ez zaizkio 2013ko likidazioari egotzi 2013ko urrian eta azaroan mandako maileguetatik heldutako interesak –400.000 euroko eta milioi bat euroko printzipala zuten mailegu horiek, hurrenez hurren–; izan ere interes horiek, gure kalkuluen arabera 2.230 euro ingurukoak izanen ziren; likidazio hori 2014an egiten da.

Ondorengo taulan, udal zerga bakoitzaren arabera aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da:

Udal zergak	Aitortutako eskubideak		Aldaketaren ehunekoa
	2012	2013	2013/2012
Landa-lurraren gaineko kontribuzioa	6.854	6.928	1
Hiri-lurren gaineko kontribuzioa	1.546.865	1.596.379	3
Ibilgailuak	297.655	307.977	3
Lurren balio-gehikuntza	275.878	253.495	-8
JEZa	333.099	796.998	139
EIOZa	320.695	79.412	-75
Guztira	2.781.045	3.041.190	9

Nabarmentzekoa da JEZak gora egin duela, iruzur fiskalari aurre egiteko tributu-kontrolako udal plana aplikatzearen emaitza gisa –interes eta ahalegin berezia jartzen da JEZan, plusbalioetan, EIOZean eta jabari publikoaren erabilera pribatiboan. Planean aurreikusitako jarduketak aurrera eramateko, laguntza tekniko Tracasarekin kontratatu zen; horrek, 2013an, 88.375 euroko gastua ekarri du. Jarduketa horien emaitza gisa, 2013an, JEZaren kontzeptuan, 385.000 euro aitortu ziren (2009tik 2012ra bitarteko ekitaldietako berrikuspenei dagozkie) eta 403.000 euroko beste zenbateko bat, urteko eroldari dagokiona (egindako berrikuspenak horren barne direla).

Udalak, lurralde-kontribuzioari dagokionez, hiri-kontribuzioa eta landa-kontribuzioa bereizten jarraitzen duen arren, 2013an balorazio-ponentzian egindako berrikuspenarekin –2014ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra– bereizketa hori desagertu ginen da.

Udalak aplikatutako tasak Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeak jasotzen duen sortako tarte er-tain/altuan kokatzen dira, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Hiri-lurraren gaineko kontribuzioa	0,2358	0,10 - 0,50
JEZa	1,4	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza		
Gaurkotzearen koefizientea	2,62 eta 2,85 bitarte	2 eta 3,4 bitarte
Zerga-tasa	14,72	8tik 20ra
EIOZa	5	2 - 5

Diru-sarreraren aurrekontuko kontusailen lagin baten gainean egindako azterketaren bitartez, oro har, egokiro izapidetu eta kontabilizatu direla egiaztatu dugu. Alabaina, ondorengo puntu hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Ez dago jasota kostuen azterlanik egin denik, 2013an aplikatutako tasen eta prezio publikoen tarifa bermatzen duenik.
- Udala agente exekutiboarekin lotzen duen kontratua 2001ean izenpetu zen; horrenbestez, legedian aurreikusitako legezko gehieneko epea gainditu zen. 2013an, 22.211 milioiko gastua ekarri zuen.

Gure gomendioak:

- *Kasuko kostu-azterlanetan aplikatu beharreko tarifen zenbatekoa justifikatzea.*
- *Administrazio-kontratazioaren arloko legedia aplikatzea agente exekutiboarekiko kontratu-harremanetan.*

V.7. HIRIGINTZA

Uharteko Udalak hirigintza-lanak bere baliabideekin –idazkari bat eta administrari bat– egiten ditu. Gainera, kanpo-aholkularitza bat badauka, arkitekto batena eta ingeniari batena, ordukakoa; laguntza horrek 28.807 euroko kostua izan zuen 2013an.

Arlo honetako kudeaketari buruzko idatzizko prozeduren eskulibururik ez badago ere, kanpoko langile eta aholkulariei esleitutako lanak mugatuta daude.

Bestalde, zehaztu beharra dago ezen, Areacea sozietatea sortu zenetik, garapenaren arlo nagusietako hirigintza-kudeaketa hark bete izan duela.

Udalaren hirigintza plan indarduna 1982an onetsitakoa da. Plan hori ez zen ez egokitu, ez homologatu Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Legean ezarritako erregulazioarekin.

Gaur den egunean, plan hori zaharkituta dago, eta hark planeamendurako egindako zehaztapenak ia agortuta daude. Uharteko udalerria 1982an udal sasi-landakoa izatetik industriak eta zerbitzuek garrantzi handia duten gune bat izatera pasa da, bestelako egitura sozial eta demografikoa duena. Hartara, esate baterako:

- 2001ean, 3.050 biztanle inguru zituen; 2013an, berriz, 6.781 biztanle dauzka; hau da, populazioa lehenengoaren halako bi da.
- Data horretatik, 2.000 etxebizitza baino gehiago eraiki dira; haietatik, ehuneko 39 etxebizitza babestuak dira.
- Industria-, merkataritza- eta aisia-lurzoruko 410.000 m² inguru garatu dira.

Ganbera honek 2007ko kontuei buruz egindako txostenean jada aipatzen zen Plana guztiz exekutatua zegoela, eta araudia barreiaturik egoteko arriskua zegoela, bai eta plan partzialen ordenantzen artean gatazkak gertatzeko balizko arriskua ere. Gainera, kontuan hartu beharra dago ezen planak berak aurreikusten zuen 1989ko ekitaldira arteko iraupena izanzen zuela, baina 25 urte geroago oraindik ere indarrean jarraitzen du.

2004ko amaieran, Udalak urrats batzuk hasi zituen udal plan berri bat egiteko. Hartara, lizitazio publikoa egin ondoren, 2006an, lurraldea okupatzeko estrategia eta ereduaren (LOEE) lehenengo aurrerapen bat aurkeztu zen; haren onespina hurrengo legegintzaldira arte utzi zen. 2014ko martxoko Osoko Bilkurak hasiera batez onetsi zuen lurraldea okupatzeko estrategia eta eredia eta jendaurreko epea zabaldu zuen; horrenbestez, lehenengo urratsa egin zen udal planeamendu berri bat egiteko.

Indarrean egon den aldian, plana honako tresnen bitartez garatu da:

Tresna	Kopurua
Udal plan orokorraren aldaketak	54
Plan partzialak	5
Plan partzialen aldaketak	17
Plan bereziak erabilia.	2
Plan berezien aldaketak	4
Xehetasun azterlanak	68
Birzatiitze proiektuak	14
Birzatiitze proiektuen aldaketak	2
Hirigintza proiektuak	13
Urbanizazio proiektuen aldaketak	1
Konpentsazio proiektuak	3
Garapeneko tresnak, guztira	183

2013an hirigintza dela-eta izandako diru-sarrerak eta aurreko ekitaldikoekiko alderaketa ondoko taula honetan adierazten dira.

Hirigintzaren arloko diru-sarrerak	2012	2013	Aldaketaren ehuneko
EIOZa	320.695	79.413	-75
Jarduera-lizentziak	56.676	28.310	-50
Hirigintza-lizentziak	47.924	26.444	-45
Areta 2ko urbanizazio-kuotak	19.544	-10.742	-155
Ollokiko urbanizazio-kuotak	2.343.291	0	-100
Guztira	2.788.130	123.425	-96

Higiezinaren sektorearen egoera aurreko taulan nabarmentzen da; izan ere, izaera horretako diru-sarrerak ehuneko 96 egin dute behera.

Planaren garapeneko aurreko tresnetatik, 2013an, plan orokorraren bederatzi aldaketa, xehetasun azterlan bat eta urbanizazio proiektu bat kudeatu dira. Haien lagin baten gainean egindako berrikuspenetik, ondorioztatzen da izapidetzea, oro har, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen aurreikuspenen arabera izan dela.

2007ko txostenean aipatu bezala, ez dago jasota erregistro berariazko eta independente bat dagoenik lurzorua udal ondarea osatzen duten ondasunak jasotzeko, eta hirigintza-eragiketarik lortutako lursailak Areacea sozietateari lagatzen zitzaizkion; ez dago jasota, ezta ere, eragiketa horietatik heldutako diru-sarrerak atxikita daudenik. Hala eta guztiz ere, Udalaren higiezinaren zerrenda bat badago, 2011n egina.

Formalki hirigintza-hitzarmenen erregistro bereizi eta independenterik ez badago ere, haiei buruzko eta haiek kasuko dokumentazioarekin duten loturari buruzko prozedura informatiko bat badago. 2013an, hirigintza-hitzarmen bat sinatu da; hitzarmen horretan jasotzen da aprobetxamenduaren nahitaezko lagapena eskudiruz ordezteko kasu bat –ordezpen horren justifikazioa da ez dela bideragarria hura lurzorutan gauzatzea–, zeinak balorazio-txosten independente baten bermea baitauka.

Gure gomendioak:

- *Hirigintza-planeamendu berria onesteko prozesua presaz amaitzea.*
- *Udalaren lurzoru-ondarearen inbentarioa eta erregistroa sortzea, kontuan izanda gainerako ondasunetatik berezita kudeatu behar dela, eta indarrean dagoen legedian jasotako helburuei lotuta dagoela.*

V.8. PATRONATUAK

V.8.1. Udalaren Kirol Patronatua

Kirol Patronatua izaera administratiboa duen erakunde autonomo bat da, 1988an sortua toki eskumeneko kirol zerbitzu publikoak sustatu, bultzatu eta kudeatzeko. Haren funtzionamendua, 2013an, 2001eko estatutuek eta 2013ko urrian onetsitakoek arautzen dute.

Patronatuak hiru langile dauzka: kirol koordinatzaile bat eta bi administrari ofizial, horietako bat lanaldi partzialarekin.

2013an, 1,03 milioi euroko hasierako aurrekontua dauka; aurrekontu hori gorantz aldatu zen, 0,13 milioitan, eta, horrenbestez, 1,16 milioiko behin betiko kredituak daude. Aitortutako betebeharrak 1,17 milioi egiten dute, ehuneko 101eko betetze-portzentajearekin; hau da, gastuek behin betiko kredituen aurreikuspenak gainditzen dituzte langileen kapituluan eta ondasun arruntenean, eta, horrenbestez, ez da betetzen gastuetarako kredituak mugatzeari buruzko printzipioa.

Aitortutako eskubideek 1,14 milioi euro egiten dute guztira, eta betetze-maila ehuneko 98 da.

Ekitaldiko aurrekontu-emaitza doitu negatiboa izan da, 34.195 eurokoa; guztizko diruzaintza-gerakina eta gastu orokorretarako ere negatiboa izan da, 77.951 eurokoa.

Azken batean, Patronatuaren gastuak eta diru-sarrerak hurrengo taulan ematen ditugunak dira:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Ehunekoa	Finantzabidea	Zenbatekoa	Ehunekoa
Langileak	117.264	10	Tasak eta prezioak	717.132	63
Ondasun arruntetako gastuak	984.901	84	Transferentzia arruntak	418.218	36
Transferentzia arruntak	73.678	6	Ondare bidezko diru-sarrerak	6.299	1
Gastuak, guztira	1.175.843	100		1.141.649	100

Hau da, finantzaketa funtsean dagokie instalazioetako erabiltzaileen ekarpenei –ehuneko 63–, bai eta Udaletik jasotako diru-laguntzei ere –290.000–; halaber, diru-sarrera bat izan du, diru-laguntzat hartutakoa, aseguru-partzuergoarena, uholdeek eragindako kalte-ordain moduan: 123.381 eurokoa da.

Gastuetan, kontusail garrantzitsuenak mantentze-lan eta hornikuntzenak eta langileenak dira.

Halaber, emaitzen balantze eta kontua ageri dira, zuzenean aplikazio informatikotik lortutakoak.

Ez dago formalki jasota udaletik jasotako ondasunen atxikipena, eta ez dago ondasunen inbentariorik.

Patronatuaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioari, aurrekontukoari eta kontabilitatekoari dagokionez, honakoa adierazi behar dugu:

- Patronatuko langileak Udalak kontratatu eta izendatzen ditu; funtsean diru-sarreraren kudeaketaren arloko lan administratiboak dihardute, bai eta fakturen eta kontabilitatearen egiaztapenean eta ordainketan ere. Egiten diren lanak berariaz jasota daude idatzizko dokumentu batean.

- Nominaren kudeaketa Udalaren enpresa berak egiten du, eta 2014tik berak kontrolatzen eta kontabilizatzen du zuzenean.

- Instalazioen eta lorezaintzaren mantentze-lanak Udaleko langileek egiten dituzte zuzenean.

- Udalak, halaber, zuzenean lantzen eta onesten ditu bere aurrekontuak, kontu orokorrak, plantilla organikoa eta aplikatzeak diren tarifak.

- Kontratazio administratiboak zuzenean egiten ditu Udalak, salbu eta zenbateko txikia dutenak.

- Legearen eta arlo ekonomikoaren barne-kontrolako eginkizunak Udalaren organoek beraiek egiten dituzte.

2013ko kudeaketaren alderdi azpimarragarri moduan, honakoak adierazi behar ditugu:

- Bazkideen kuoten bidezko diru-sarrerak kudeaketa-zailtasun handiak dauzkate, zeren eta adinarteen eta PFEZaren errenta-tarteen arabera kuantifikatzen baitira; gainera, erroldatuta daudenak eta ez daudenak bereizten dira. Hilabetearen, 1.500 ordainagiri inguru bidaltzen dira.

- Langileen ordainsarien araubidea Udalaren sistema orokorraren barruan araututa dago. 2013an, eros-ahalmena galtzearen ondoriozko 2012ko osagarria –, 5.675 euro dira– jaso dute langileek.

- Diru-laguntzen bidezko diru-sarrerei dagokienez, Aseguruaren Partzuergoaren diru-sarrera biltzen da, kirol instalazioetan uholdeek eragindako kalteetatik heldu dena; izan ere, instalazio horiek udalarenak dira, eta udalak daukan polizaren barruan sartzen dira. Diru-sarrera, hasiera batean, Udalak jaso zuen, eta gero patronatuari transferitu zion. Kalte horiek konpontzeko lanak, alde batetik, kontratatutako enpresa batzuek egin zituzten eta, bestetik, Udaleko langileek zuzenean.

- Kirol klubentzako diru-laguntzak oinarri batzuetan araututa daude, eta deialdi publiko bidez ematen dira.

- 2013an, Udalak bi deialdi egin zituen makina kardiobaskularren hornikuntza kontratatzeke eta kirol instalazioetan zenbait zerbitzu emateko laguntza teknikorako; esleipen zenbatekoak 20.661 euro eta 358.044 euro ziren, hurrenez hurren, BEZik gabe.

Egindako berrikuspen selektibotik ez dago aipatzeko moduko gorabeherarik.

Gomendioak:

- *Gastuetarako kredituak mugatzearen printzipioa betetzea, eta, hala behar izanez gero, behar diren aurrekontu-aldaketen figura aplikatzea.*

- Bere jabetzakoak diren ondasunen eta Udalak haien jarduerak garatzeko haiei atxikitako ondasunen inbentario oso eta gaurkotua egitea.
- Matrikula-modalitateen sinplifikazio bat aztertzea.
- Diruzaintza-gerakin negatiboak zuzentzeko araudian aurreikusitako neurriak hartzea.

V.8.2. Musika Patronatua

Udalaren Musika Patronatua izaera administratiboko erakunde autonomo bat da, 1988an sortua Udalaren musika eskolaren funtzionamendurako behar direnak egiteko.

Patronatuak hamaika langile dauzka, guztiak ere lanaldi partziala duten musika irakasleak. Eskolak Udalaren Kultur Etxearen solairu batean ematen dituzte. Ez du langilerik administrazio- nahiz kontabilitate-kudeaketak egiteko.

2013an, 258.520 euroko hasierako aurrekontu/behin betiko aurrekontua dauka. Aitortutako bete-beharrek 271.004 euro egiten dute, ehuneko 105eko betetze-ehunekoarekin; hau da, gastuek behin betiko kredituen aurreikuspenak gainditzen dituzte langileen kapituluan gehiegizko gastua izatearen ondorioz; horrenbestez, ez da betetzen gastuetarako kredituak mugatzeari buruzko printzipioa.

Aitortutako eskubideek 254.894 euro egiten dute guztira, eta betetze-maila ehuneko 99 da.

Ekitaldiko aurrekontu-emaitza doitu negatiboa izan da, 16.110 eurokoa; guztizko diruzaintza-gerakina eta gastu orokorretarakoa, berriz, positiboa da, 28.760 eurokoa.

Azken batean, Patronatuaren gastuak eta diru-sarrerak hurrengo taulan ematen ditugunak dira:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	%.	Finantzabidea	Zenbatekoa	%
Langileak	260.623	96	Tasak eta prezioak	94.640	37
Bestelako gastu arruntak	8.836	3	Transferentzia arruntak	160.251	63
Inbertsioak	1.555	1	Ondare bidezko diru-sarrerak	3	-
Gastuak, guztira	271.004	100		254.894	100

Hau da, funtsean, Udaletik -132.500 euro- eta Nafarroako Gobernutik -27.751 euro- jasotako ekarpenekin finantzatu da, bai eta eskolako ikasleek ordaindutako ekarpenekin ere -94.640 euro-.

Gastu ia guztiak langile-gastuei dagozkie.

Halaber, emaitzen balantze eta kontua ageri dira, zuzenean aplikazio informatikotik lortutakoak.

Patronatuaren musika-tresnen zerrenda baloratu bat badago.

Patronatuaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioari, aurrekontukoari eta kontabilitatekoari dagokionez, honakoa adierazi behar dugu:

- Kudeaketa hori Udalak egiten du zuzenean, bere langileekin.
- Patronatuko langileak Patronatuak berak kontratatu eta izendatzen ditu. Nominaren kudeaketa Udalaren nomina kudeatzen duen enpresa berak egiten du.
- Udalak zuzenean lantzen eta onesten ditu bere aurrekontuak, kontu orokorrak, plantilla organiko eta aplikatzekoak diren tarifak.
- Legearen eta arlo ekonomikoaren barne-kontrolako eginkizunak Udalaren organoek beraiek egiten dituzte.

2013ko kudeaketaren alderdi azpimarragarri moduan, honakoak adierazi behar ditugu:

- Matrikulen bidezko diru-sarrerak 15 tarifa-modalitatearen bidez zehazten dira, gehi PFEZaren sei tarte, gehi errolatuta egotearen ala ez egotearen faktorea eta epe bakarrean ala bi epetan ordaintzeko aukera. 2013/2014 ikasturtean, guztira 205 ikasle matrikulatu ziren.

- Irakasleen kudeaketa. Plantillari berari buruz, honako alderdiak nabarmendu behar ditugu:

a) 2013ko plantilla organikoa irakasleen 12 lanpostuk osatzen dute; horietatik, zazpi hutsik daude. Hutsik dauden horietatik sei aldi baterako kontratuekin beteta daude; lanpostu guztiak lanaldi partzialleko kontratuekin lotuta daude. Haien urteko zehaztapena matrikulatutako ikasle kopuruaren arabera izaten da.

b) Ordainsarien araubidea Udalaren sistema orokorraren barruan dago; guztiak ere B mailako langileak dira. 2013an, 2012ko eros-ahalmenaren galerarengatik osagarria jaso zuten; guztira, 12.763 euro.

c) Halaber, 2013ko ekitaldian, aparteko soldatak ordaintzeko sistema aldatu zen; izan ere, haiek beste hileko soldata baten gisara hartzen hasi ziren, ez hamabi hilabeteetako ordainketetan prorratetuta.

d) Langileen espedienteek ez dute araudi indardunak exijitzen duen informazio guztia jasotzen.

Gomendioak:

- *Gastuetarako kredituak mugatzearen printzipioa betetzea, eta, hala behar izanez gero, behar diren aurrekontu-aldaketen figura aplikatzea.*

- *Matrikula-modalitateen sinplifikazio bat aztertzea.*

- *Langileen espedienteak osatzea laneko historia osoa dokumentatzeko exijitzekoa den informazioarekin.*

Azken batean, uste dugu aztertu beharra dagoela patronatu horiek organo autonomo gisa mantentzea, zeren eta haien kudeaketaren atal garrantzitsu bat exekutatzeko baina jada udal zerbitzuetatik beraietatik; hartara, zerbitzu horiek behartzen dira aurrekontu, kontu, kontabilitate- eta aurrekontu-erregistro eta kontrol ekonomiko eta juridikoa egin eta jarraitzea, hartara udalaren esparruaren beraren jardueran aritzea zailduz eta konplikatur. Hori dela eta, uste dugu aztertu eta planteatu beharra dagoela haiek udal zerbitzu bihurtzea.

V.9. ENPRESEN SEKTORE PUBLIKOA

Ganbera honen 2007ko txostenean –hartara jotzea gomendatzen dugu– legezkotasunaren azterketa bat egin zen, Udalaren sozietate publikoen eraketari buruz eta sozietate horiek une horretara arte egindako eragiketa nagusiei buruz.

2013ko abenduaren 31n, Udaleko enpresen sektore publikoa honako sozietateak osatzen du: Areacea, SAU. Sozietate horren kapital sozial guztia Udalarena da.

Sozietate hori 1999ko apirilean eratu zen. Haren xede sozialak honakoak hartzen ditu: hirigintzako azterlanak eta antolamenduko planak, lurzorua sustatzeko urbanizazio-jarduera, eta antolamendu planak exekutatzeko hiri-azpiegiturako edo zerbitzu-zuzkidurako obrak egitea; urbanizazioaren eta lurzatiaren besterentzetik heldutako obra eta zerbitzuen kudeaketara eta ustiaketara ere zabaltzen da, bai eta industria-nabeak eta alokairu-araubideko etxebizitzaren sustapenera eta eraikuntzara ere. Halaber, sozietatearen estatutuak aldatu zirenetik –2003an aldatu ziren–, eraikuntza-jarduera eta urbanizazio-jarduera batera sartzen dira.

Gaur egun, ez du berezko hirigintza- edo sustapen-jarduerarik, eta higiezinaren ibilgetuaren kudeaketan dihardu, funtsean.

Sozietatea sortu zenetik, Uharteko Udalak zenbait hirigintza-planeamenduren kudeaketa esleitu zion: hiru plan partzial –Ugarrandia, Mokarte eta Itarua–, Miraballesko barne eraberritzeko plan berezia, hedakuntza industrialeko hiru arlo –Areta 2, Oloki eta Urbi eta Urbizkain–, eta Itarua eta Euskal Jai Berri Pilotalekuaren arloa. Horrekin, lurzoruko 8,7 milioi m² 1.595 etxebizitza garatu zituen.

Jarduketan aurreko multzo hori sektore pribatuak sustatu zituen, salbuespen batekin, Ugarrandiko plan partziala, zeina sustapen publikokoa izan baitzen. Horietan guztietan, Areaceak hirigintzaren kudeaketaz arduratu zen.

Jarduera hori garatzeko, gainera, Areacea sozietateak, bi bazkide pribaturekin, bi sozietate misto eratu zituen; haietan, gehiengo zuen, kapitalaren ehuneko 51 baitzeukan.

- Urate Desarrollo Urbano, SA, Areacearen jabetzako lurzatieta etxebizitza babestua eraiki eta sustatzeko. Sozietate horrek 640 etxebizitza babestu eraiki zituen guztira.
- Mokarte Aparcamientos Subterráneos, SRL, 114 tokiko eta zortzi trastelekuko lurrazpiko aparkaleku bat eraiki eta ustiatzeko.

Gaur egun, bi sozietate misto horiek deseginda eta azkenduta daude.

Halaber, Areaceak udal azpiegitura batzuk egin zituen; esate baterako, Arte Garaikideko Zentroa Museoa, izotz pista eta bainuetxea, merkataritza-galeria eta abar.

Gaur egun, sozietateak higiezin-ondarearen edukitzailea da. Horretatik, funtsean, honakoa nabarmendu behar dugu: zenbait lurzati, hiru etxebizitza, alokairurako 50 etxebizitza, izotz-pistaren eraikina, merkataritza-galeria bat eta museoaren eraikina. Ibilgetua sozietate hori ustiatzen ari da.

Sozietatearen 2010-2015 aldirako jarduketa planari jarraituz, Sozietateak, 2002tik 2011ra guztira 35,2 milioi inbertitu eta gastatu ditu, eta 32,6 milioiko diru-sarrerak izan ditu; horrenbestez, 2,6 milioiko diruzaintza-beharrak sortu dira. Laburbilduz, aurreko datuak honela xeheka daitezke:

Inbertsioak eta gastuak.	Zenbatekoa	Finantzaketa	Zenbatekoa	Ehunekoak
Arte Garaikideko Zentroa	8.100.000	Lursailak saltzea	11.705.100	36
Izotz-pista eta bainuetxea	9.200.000	Hirigintzaren kudeaketa	1.339.300	4
Merkataritza-galeria	1.200.000	Ondarearen kudeaketa	3.034.000	9
50 etxebizitza	1.900.000	Sozietate mistoen dibidenduak	827.000	3
6 etxebizitza	700.000	Kapitaleko diru-laguntzak	1.006.600	3
Euskal Jai Berri pilotalekua	2.200.000	Izotz-pistaren eta bainuetxearen finantzaketa	1.250.000	4
Andra Mari Zuria Ikastetxea	4.085.000	Kanpoko finantzaketa	13.432.000	41
Zenbait lurzati	2.500.000			
<i>Inbertsioak, guztira</i>	<i>29.885.000</i>			
2002-11 urteetako jardueraren arruntaren gastuak	5.332.000			
Guztira ordaindutakoa, 2002-2011 urteetan	35.217.000	Guztira kobratutakoa, 2002-2011 urteetan	32.594.000	100

Ikus daitekeen bezala, finantzaketaren ehuneko 42 kanpoko iturrietatik dator, bereziki finantza-entitateetatik (12,4 milioi).

Hirigintzan jarduerarik izan ez denez, sozietatea ez da gaza izan baliabide berekiak sortzeko, bere higiezin ondarea ustiatzearen bitartez. Honakoak dira 2013an indarrean dauzkan izaera horretako kontratuak:

- Bere jabetzako 50 etxebizitzaren alokairua, zeinak 2013an 152.575 euroko diru-sarrerak sortu dituen.
- Arte Garaikideko Zentroaren eraikina. Izen bereko fundazio publikoari alokatu zitzaion urteko 180.000 euroko errenta baten truke –KPIaren arabera berregokitu daitekeen errenta da–; halere, 2010etik alokairu hori doako lagapen bihurtzen da, Nafarroako Gobernuarekin zentro horren kudeaketa eta finantzaketarako sinatutako hitzarmenaren ondorioz.
- Euskal Jai Berri pilotalekua Ez du inongo diru-sarrerarik sortzen sozietatearentzat. Udalak partaidetza duen fundazio batek kudeatzen du.
- Izotz-pista eta bainuetxea. 2002an adjudikatu zen kontratua, proiektua idaztearekin eta instalazio horiek egiteko obrarekin batera, 30 urteko iraupen batekin, instalazioak martxan jartzen zirenetik kontatzen hasita; urteko gutxieneko kopurua 120.215 eurokoa da. 2007tik, esleipen-hartzaileak ez du urteko kanona ordaintzen, eta zenbait instantzia judizialean erreklamatu zaio; 2013ko uztailan, en-

presak hartzekodunen borondatezko lehiaketan dagoela deklaratu du, eta Areacea sozietatea pertsonatu da prozesuan. 2012ko eta 2013ko kobratu gabeko kanona 185.532 eta 186.089 eurokoa da, hurrenez hurren; kontzesiodunaren guztizko zorra 1,06 milioikoa da.

- Merkataritza-galeria, frontoiaren ondoan, 3.000 m²-ko azalerarekin. Bi enkante egin dira, eta eman gabe utzi dira.

- Azalerarako eskubidea emateko kontratua, erosteko aukerarekin Ollokilanda-Urbi sektorean, Esteribarko eta Uharteko udalerrian. (40.779 m²-ko orubea). Areacea sozietatea lurzati horren ehuneko 55,17ren jabea da. 2006an, haren kontzesio-kontratua sinatu zen.

Kontratuaren jatorrian Uharteko eta Esteribarko udalen arteko hitzarmen bat dago; haren bitartez, biek konpromisoa hartzen dute beren plan orokorrak aldatzeko, horren bidez, lurzoru urbanizagarriko eta erabilera industrial tertziarioko sektore bat sortzeko, bi udalerrietan.

Behin planeamendu orokorraren aldaketa-espedienteak onetsi ondoren eta Ollokilanda sektorean sektore industrial tertziario bat eratuta, sektore hori garatu beharra dago plan partzial bakarra, birzati-keta proiektua (lankidetzaraubidean) eta urbanizazio proiektu bat eginez; tresna horiek, izan ere, Uharteko Udalak kudeatu beharrekoak dira, Areacea sozietatearen bitartez.

Plan partzialak 40.799 m²-ko lurzati garbi bat egituratuta dauka bi udal horien alde, industria-instalazioetarako egokiak diren hirigintza-erabilera eta -zehaztapenekin, eta harekin mugakidea izaki, zuzkidura-erabilera duen beste lurzati bat, 7.644 m²-koa. Lehenengo lurzatia udalei eta Areacea sozietateari dagokie, sektoreko eredu-aprobetxamenduen ehuneko 10aren lagapenaren indarrez.

Bi lurzatiak merkataritza-enpresa baten interesekoak ziren, nahiz eta, une hartan, udalek nahiago izan zuten haiek errentagarri egitea epe luzeko aldizkako diru-sarrera bat jasotzearen bitartez. Hori dela-eta, azalera-eskubidearen kontzesio-kontratu bat sinatu zen, erosteko aukerarekin, honako klausula nagusi hauekin:

a) Azalera-eskubidearen kontzesio-prezioa urtean 328.999 eurokoa da, BEZa kenduta, jabeen artean banatzeko. Kopuru hori KPI nazionalaren aldaketaren arabera gaurkotuko da.

b) Azalera-eskubidearen kontzesioaren gutxienerako iraupena 45 urtekoa da, enpresa kontzesiodunak nahi badu bost urteko epetan luza daitekeena, gehienez ere 75 urtera arte, salbu eta erosteko aukeraz baliatzeko kasuan.

c) Kontzesio-kontratuaren lehenengo hamar urteko ordainketak iraganda, enpresak hamar urte dauzka erosteko aukera betearazteko.

d) Erreserba-prima: Lurzatiaren erreserbarako prima bat ezartzen da, enpresaren aldekoa, honako baldintzetan: Lehen laurtekoarengatik, 1,5 milioi; bigarrenarengatik, kopuru bera; eta hirugarrenarengatik, milioi bat euro.

e) Erosketa-prezioa: Lurzatiaren prezioa 12,8 milioikoa da, BEZik gabe. Horrenbestez, aukera betearaziz gero ordaindu beharreko prezioa guztizko prezioa ken ordaindutako primak izanen da; horrenbestez, 8,8 milioi, BEZik gabe.

f) Azalera-eskubidearen eta erosteko aukeren xede denaren mugakidea den 7.644 m²-ko zuzkidura-lurzatiaren kontzesioa eta aparkalekurako erosteko aukera. Horren arabera, enpresak 6.000 euroko urteko prezioa ordainduko du kontraprestazio gisa. Kontzesioak 49 urteko iraupena izanen du; horien ondotik, enpresak kontzesioa edo erabilera berritzeko, edo bestela, legez bidezkoa bada, lurzatiaren erosteko, lehentasunezko eskubidea izanen du. Eskubide horiek baldintza bat izanen dute: lurzati nagusiaren edukitzari edo jabetzari eustea.

2013ko eta 2012ko ekitaldietan, Areacea sozietateak kontratu horrengatik 205.285 euro eta 210.292 euro kobratu ditu, hurrenez hurren.

Azkenik, hurrengo taulan erakusten dugu 2012an eta 2013an Areacea sozietatearen gastuek eta diru-sarrerek izan duten bilakaera.

Diru-sarrerek	2012	2013
Negozio-zifraren zenbateko garbia	14.663.741	35.659
Ustiapenarengatiko diru-sarrera gehigarriak	407.044	364.063
Izakinen aldaketak	-13.797.870	0
Ibilgetuko diru-laguntzen egozpena	81.719	81.719
<i>Diru-sarrerek, guztira</i>	<i>1.354.634</i>	<i>481.441</i>
Gastuak	2012	2013
Langile-gastuak	84.190	77.211
Amortizazioak	740.460	733.599
Hornidurak	629.350	0
Bestelako ustiapen-gastuak	541.549	102.881
Andeatzeak eta bestelako emaitzak	36.402	270
Finantza-eragiketen emaitzak	504.436	395.486
<i>Gastuak, guztira</i>	<i>2.536.387</i>	<i>1.309.447</i>
Ekitaldiko emaitza	-1.181.753	-828.005

Hau da, salmentengatiko diru-sarrerek nabarmen egin dute behera, eta proportzio handiagoan, gastuek baino; horietan, garrantzi handikoak dira amortizazioak eta finantza-izaerako gastuak. Horrek, diruzaintzako tentsio handiak sortu ditu, eta eragin du sozietateak finantza-entitateekin itundutako mailegu-amortizazioen kuotak ordaintzeari uztea, 2013ko erdialdetik aurrera, eta Udalak baliabideak jarri behar izatea udal ondarea defendatze aldera eta lehiaketaren balizko deklarazioa saihesteko.

Egoera larri horri konponbidea emate aldera, aipatu jarduketa-planak zenbait neurri aurreikusten zituen; esate baterako, aktibo batzuen salmenta, banku-entitateekiko maileguak berriz finantzatzea, Udalak ekarpenak egitea, eta azalera-eskubidearen kontzesioa duen enpresak erosteko aukeraren betearazpena aurreratzea –ia bost milioiko zenbatekoa–. Gaur egun, aktiboen salmentak, higiezin merkatuaren egoera dela eta, ez ditu espero zirenak bete, eta finantza entitateekin eta aipatutako enpresarekin negoziatzen jarraitzen da.

Sozietatearen finantza-egoeraren eta haren xede soziala, praktikan, agortuta egotearen aurrean, 2013ko azaroan, Udalaren Osoko Bilkurak erabaki zuen aipatutako sozietatea desegitea, eta bere gain hartu zituen haren aktiboak eta pasiboak; erabaki hori hartu zen kontuan hartuz, gainera, Udaleko kontu-hartzailetzaren txosten bat, non xehetasun guztiekin aztertzen baita sozietatearen egoera larria eta etorkizunerako proiektio negatiboak, neurri zuzentzailek hartu ezean. Osoko Bilkuraren agindu hori oraindik ere ez da bete.

Sozietatearen urteko kontuen auditoria kanpoko profesional batzuek egiten dute. 2013ko auditoriari, finantza-egoerari eta Udalarekin egindako eragiketei buruzko iritziri dagokionez, txosten honen III.2 eta III.3.2 atalera jo beharra dago.

Azkenik, nabarmendu behar ditugu Areaceak beste sozietate batzuetan dauzkan parte-hartzeak.

- Urarte Desarrollo Urbano, S.A. sozietate mistoa.

2011ko azaroan, Areacearen Administrazio Kontseiluak erabaki zuen sozietate misto horretan zeukan kapitalaren ehuneko 51 sozietate horretako bazkide pribatuari saltzea. Besterentze horren zenbatekoa, balorazio-txostenen arabera, 2,17 milioikoa da. Gainera, jasotzen da bazkide pribatu horrek 2012tik 2013ra 160.000 euroko ekarpen bat egin beharra daukala Udalaren kirol eta kultur jarduerak finantzatzeko; gaur arte, 10.000 euro baizik ez ditu ordaindu. Horrenbestez, Udalak oraindik ere 150.000 euro dauzka kobratzeko.

- Mocarte Aparcamientos Subterráneos, S.R.L. sozietate mistoa.

Areaceak sozietate horren kapitalaren ehuneko 51 zeukan; gainerakoa bazkide pribatu batek zuen. 2013ko apirilean, Areacearen Administrazio Kontseiluak erabaki zuen sozietate hori desegitea, ondusunak likidatzea eta sozietatea azkentzea. Likidazioaren amaierako balantzea, kanpoko aholkulari batek prestatua, honakoek osatzen dute: 15 garaje-toki eta trasteleku batek osatutako aktibo bat. Horiei 142.214 euroko balioa ematen zaie; ondare garbia 187.145 euro negatiboa da, emaitza negatiboak

metatzearen ondorioz; azkenik, pasibo ez korrontea 329.359 eurokoa da, eta bazkideen maileguei dagokie. Zenbateko horren ehuneko 52,88 Areaceari dagokio eta ehuneko 47,12, berriz, bazkide pribatuari. Aktiboko ondasunen banaketan, azken ehuneko horiei aplikatzen zaizkie, eta sozietate publikoari dagozkio, zortzi garaje-toki eta trasteleku bat: 75.196 euro egiten dute guztira. Desegitea 2013ko apirilean gauzatu zen eskritura publiko bidez.

- Foro Europeo Escuela de Negocios de Navarra.

2002ko apirilean, Areacea eta Foro Europeo sozietateek hitzarmen bat sinatu zuten. Hitzarmenaren arabera, Areaceak hiru zuzkidura-lursail laga zituen –Udalarengandik doan jasotakoak–, foro horrek Uharten enpresa-campus bat garatzeko instalazioak ezar ditzan. Areaceak Foro Europeo sozietatearen kapitalaren % 2ko partaidetza lortu zuen horrela; hau da, 98.116 euroko balioko partaidetza. Areacea sozietatearen 2013ko balantzean, zenbateko horren zuzkidura osoa jaso da.

V.10. FUNDAZIOEN SEKTORE PUBLIKOA

Uharteko Udaleko fundazioen sektore publikoa, 2013ko abenduaren 31n, honakoak osatzen du: Arte Garaikideko Zentroa fundazioa, 2015eko apirilean eratua, 6.000 euroko hasierako zuzkidurarekin –hasiera batean Udalak⁶ ehuneko 60 jarri zuen, eta Areacea sozietateak, berriz, ehuneko 40–.

Fundazioaren xede soziala, artearekin lotuta dagoena, zen espazio publiko bat sortzea eta hura edozein kultur jardueratarako kudeatzea. Kontua zen une hartan eraikitzen ari zen Uharteko Arte Garaikideko Zentroari eduki bat ematea.

2006ko abenduan, arte zentroaren eraikuntza amaituta⁷, haren jabea –Areacea sozietate publikoa– CACH fundazioari alokatu zion, 200tik aurrerako, urteko kopuru baten truke: 180.000 euro, KPIaren arabera berraztertu beharrekoak. Data horretan, halaber, fundazioak zentroaren kudeaketa integraleko kontratu bat sinatu zuen beste fundazio pribatuarekin, zortzi urtera bitartekoa; urteko gutxieneko kostua 1,2 milioi eurokoa izanen zen.

Urte berean, Nafarroako Gobernuak Kultura Departamentuarekin hitz egiten hasi zen, zeren eta Udalak jotzen baitzuen ezin ziola aurre egin zentroaren kudeaketatik zetorren gastuari; Nafarroako Gobernuak, berriz, arte garaikidea sustatzeko espazio bat eduki nahi zuen.

2009ko otsailean, bi erakundeek lankidetzeta-hitzarmen bat eta asmoen protokolo bat sinatu zuten, honakoei buruz:

- Nafarroako Gobernuak Uharteko Arte Garaikideko Zentroa (CACH) fundazioa finantzatuko du, aurrekontuaren arabera. Fundazioak, halaber, bere estatutuen arabera lor ditzakeen baliabideak izanen ditu finantzabide.

- Aipatu berri dugun kudeaketa integraleko kontratua 2009ko otsailean ebatzi zen, eta CACH fundazioak kasuko kalte-ordainari zegozkion gastuak hartu zituen bere gain, eta une horretara arte zentroan lan egiten zuten langileak kontratatu zituen.

- Areacea sozietateak doan laga zion CACH fundazioari arte zentroa hartzen duen higiezin osoaren erabilera, 2010eko urtarriletik hasi eta 2014ko abendura arte, bai eta altzari guztiak ere; horren barruan sartzen dira, halaber, dauden espazio guztiak direla-eta –jartetxe-tabernarena, esate baterako– sinatutako kontratuak.

- CACH fundazioak 2009ko abenduaren 31 baino lehen bere gain hartu eta likidatu ez diren betebeharrak guztiak, Udalak ordainduko dizkio aipatutako fundazioari.

- Gobernuak kudeaketa bere gain hartzeko, estatutuak aldatu behar dira. Hartara, Patronatuak bederatzi kide izanen ditu: zortzi Kultura Departamentuak izendatuak eta bat Uharteko Udalak izendatua. Patronatuko lehendakaria departamentuko titularrak izendatuko du.

⁶ Hasiera batean, Udalaren ekarpena ehuneko 55ekoa zen; gainerako ehuneko bosta Buldain fundazio publikoari zegozion. Hura deseginda, ekarpen hori Udalarena berarena izatera pasatzen da.

⁷ Zortzi milioi euro inguruko eraikuntza kostua dauka eta Udalak Areacea sozietateari doan lagatako lurzati batean dago.

2014ko urrian, Gobernuak eta Udalak arteko beste hitzarmen bat sinatu zuten. Kultura Departamentuak uste du aurreko hitzarmena bete egin dela, baina beste hitzarmen bat egin beharra dagoela arte zentroa hartzen duen higiezinaren doako lagapenari buruz, hartan 2015eko ekitaldia ere sartzeko.

Azken batean, kudeaketa ekonomiko-finantzario, artistiko eta administratiboa, lehenengo hitzarmenaren unetik, Nafarroako Gobernuko Kultura Departamentuak egin du; izan ere, entitate hori da finantzaketarako behar ia guztiak bere gain hartu dituenak. Areacea sozietateak eraikina eta aurreko kontratuak doan laga besterik ez du egin. Udalak ez du funtzionamendurako inongo kopururik jartzen, nahiz eta alkateak patronatuko kidea izaten jarraitzen duen. Horrenbestez, zentroaren fundazioa gehiago litzateke Foru Komunitateko Administrazioaren arloko fundazio bat tokiko fundazio bat baino.

CACH fundazioa Nafarroako Gobernuko Fundazioen Erregistroan izena emanda dago, eta honako-etara bilduta dago: Foru Komunitateko Administrazioaren babesletza eta fundazioen zerga-araubide berezia. Bestetik, urteko kontu laburtuak egiten ditu, eta kontu horiek enpresa pribatu batek auditatzen ditu.

Auditoriari eta finantza-egoerari buruzko iritzia dagokionez, txosten honen III.2 eta III.3.2 atalera jo beharra dago.

Gainera, honakoa esan behar dugu Udalaren fundazioen sektore publikoari buruz:

- Euskal Jai Berri Erremonte Fundazioa

Erremontearen jardura sustatzeko, 2002an, Areacea sozietateak aipatutako pilotalekua erosi zuen, eta aurreko jabeari alokatu zion; azken horrek usufuktuaren ehuneko 78 hartuta. 2004an, hura kudeatzen zuen enpresak zenbait gorabehera izan ondoren, 14 entitate publiko eta pribatuk fundazio bat sortu zuten haren kudeaketarako, eta 120.001 euroko ekarpena egin zuten. Horietatik, 20.000 euro –ehuneko 16,7– Uhartek Udaletik heldu dira. Udalaren balantzean ekarpen hori ez dago erregistraturik, eta fundazioaren urteko kontuak ere ez dira jasotzen.

- Buldain Fundazioa.

Udalak 2002an eratu zuen formalki fundazioa, 30.000 euroko ekarpenarekin eta Patxi Buldain tokiko artistaren obra bultzatzeko xedez. Horretarako, museo bat sortu nahi zen, Udalaren lokal bat horretarako jarrita. 2006aren amaieran, obrak zuzenean erosteko hitzarmen bat sinatu zen artistarekin. Erakusketa finko horrekin sortutako arazoak direla-eta, Osoko Bilkurak 2012an erabaki zuen aipatutako fundazioa likidatzea, eta lokalaren lagapena amaiaraztea, bai eta bi langileekiko lan-harremana ere. 2014ko otsailan, likidatzaileek amaierako eta itxierako balantzea onetsi zuten. Ez dago jasota ez ondasunik, ez gerakinik ere. Udalaren balantzean erregularizatu beharreko saldo bat ageri da, 30.000 eurokoa.

Ignacio Cabeza del Salvador kontu-ikuskatzailea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2015eko otsailaren 24an

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

ERANSKINA. Arte Garaikideko Zentroa fundazioaren 2013ko kontabilitateko egoera-orrien laburpena

a) 2013ko abenduaren 31ko egoera-balantzea

Aktiboa

	2012	2013
A. Aktibo ez-korrontea	61.354	46.977
I. Ibilgetu ukiezina	1.002	318
III. Ibilgetu materiala.	60.352	46.659
B. Aktibo korrontea	47.212	55.663
III. Merkataritza-zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	9.296	8.707
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	37.916	46.956
Aktiboa, guztira	108.566	102.640

Ondare garbia eta pasiboa

	2012	2013
A. Ondare garbia	-232.335	48.362
A.1 Funts propioak	-269.456	22.857
I. Sorrerako zuzkidura	6.000	6.000
III. Aurreko ekitaldietako soberakinak	-205.418	-64.150
IV. Ekitaldiko soberakina	-70.038	81.007
A.3 Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	37.121	25.505
B. Pasibo ez-korrontea		
C. Pasibo korrontea	340.901	54.278
III. Taldeko enprekin eta elkartuekin epe laburreko zorrak	211.306	-
V. Merkataritza-hartzekodunak eta ordaintzeko dauden beste kontu batzuk	129.595	54.278
Ondare garbia eta pasiboa, guztira	108.566	102.640

b) 2013ko emaitzen kontua

	2012	2013
A. Ekitaldiko soberakina		
1. Entitateak bere jardueraren ondorioz dituen diru-sarrerak	372.000	407.000
d) Aurrekontuari egotzitako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak	372.000	407.000
5. Hornidurak	-160.989	-78.293
6. Jardueraren bestelako diru-sarrerak	129.767	55.557
7. Langile-gastuak	-167.460	-135.015
8. Bestelako ustiatze-gastuak	-236.351	-171.075
9. Ibilgetuaren amortizazioa	-16.333	-14.377
10. Ekitaldira aldatu diren diru-laguntza, dohaintza eta kapital-legatuak	11.616	11.616
13. Beste emaitza batzuk		4.181
A.1) Jardueraren soberakina	-67.750	79.594
14. Diru-sarrera finantzarioak	126	4
15. Finantza-gastuak	-64	-941
A.2) Finantza-eragiketen soberakina	62	-937
A.3) Zergen aurretiko soberakina (A+B)	-67.688	78.657
18. Mozkinen gaineko zerga	-2.350	2.350
A.4) Ekitaldiko soberakinean aitortutako ondare garbi aitortuaren aldaketa	-70.038	81.007
C. Ekitaldiko soberakinaren birsailkapena		
2. Jasotako dohaintza eta legatuak	-11.616	-11.616
C.1) Ondare garbiaren aldaketa, ekitaldiko soberakinean egindako birsailkapenen ondoriozkoa	-11.616	-11.616
F. Doikuntzak	-1.501	211.306
I. Ondare garbiaren aldea	-83.155	280.697

UHARTEKO UDALARI BURUZKO 2013ko BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Uharteko Udaleko alkate-udalburu Iñaki Crespo San José jauna Kontuen Ganberaren aurrean agertu eta honakoa dio:

Udalaren 2013ko ekitaldiari buruzko behin-behineko fiskalizazio-txostena jaso dudala, eta honako ALEGAZIO hauek aurkezten dizkiodala:

BAKARRA.- "2013ko kontu orokorrari buruzko finantza-iritzia" izenburuko III.1.1 atalean, iritzia ematen da, bi salbuespenekin. Salbuespen horietako bat honakoan oinarritzen da (bigarren atala): *"Aurrekontu-likidazioari ez zaio egotzi 2013an Areacea sozietateari emandako mailegu bat, milioi bat eurokoa. Eragiketa horrek aurrekontu izaera duela jo da, eta ohartu da kontabilitate-tratamendua ez datorrela bat sozietate horri emandako gainerako maileguetan aplikatutakoarekin; izan ere, azken horiek egotzi egin zaizkio 2013ko aurrekontuari. Tratamendu hori justifikatzeko esaten da maileguaren muga-eguna, hasiera batean, bederatz hileren buruan zela, eta maileguaren, xedea, berriz, zela sozietate horrek itundutako mailegu baten finantza-zamaren nabarmen jaistea".* Udal honek, idazkaritza eta kontu-hartzailetza arloak barne, ez dago ados Ganbera horren irizpidearekin, zeren eta ulertzen baitu Areacea sozietateari 2013ko abenduan 1.000.000,00 euroko epe laburreko mailegu bat ematea aurrekontuz kanpoko eragiketa bat dela, eta ez zaiola urte horretako aurrekontuari egotzi behar.

Ez dugu uste mailegu horri emandako kontabilitate-kudeaketa bat ez datorrenik Areacea sozietateari 2013ko ekitaldi berean emandako gainerakoekin, zeren eta hark 9 hilabeteko iraupena baitzuen aurreikusia eta beste horiek urtebeterako eman baitziren.

Maileguen iraupena desberdina da, eta horrek, gure iritziz, justifikatzen du kontabilitate-tratamendua desberdina izatea.

Horixe bera gertatzen da, gainera, foru araudian aurreikusitako beste finantza-eragiketa batzuetan: zorpe- edo kreditu-eragiketetan dagoen urtebeteko mugak determinatzen du eragiketa bat diruzaintzakotzat jotzea (2/1995 Foru Legeko 124. artikulua), halako moduz non urtebeteko indarraldia gaingitzen ez badu, ez den halakotzat joko, eta aurrekontuz kanpoko tratamendu bat emanen zaion. Iraupen luzeagoa badu, berriz, ukatu egingen zaio, eta hala bada aurrekontuari egotzi beharko zaio. Nolanahi ere, Ganbera horrek islatutako salbuespena ez da inongo arautan oinarritzen, eta ez da aipatzen zein arau urratu den Areaceari 2013-12-04an emandako maileguari (1.000.000,00 euro) emandako kontabilitate-tratamendu berariazkoarekin. Gure iritziz, komenigarriagoa litzateke zehaztea Ganbera horrek mantendu duen irizpidea desadostasunezko iritzi bat besterik ez dela, salbuespenaren izaera eman gabe.

Azkenik, argigarri gertatzen da Herri-kontuen Euskal Epaitegiak Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2010eko ekitaldiko kontu orokorrari buruz egindako fiskalizazio-txosteneko (2013-01-28ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 9/50 orrialdea) lerrokada bat transkribatzea, udal honek Areaceari emandako mailegu-eragiketarekin zerikusia duelakoan –Ganbera horrek zalantzan jartzen du mailegu horri emandako kontabilitate-tratamendua–: *"2010eko ekitaldian, gaitu zen, Gipuzkoako Foru Aldundiak Etorlur, S.A. foru sozietate publikoari onartutako epe laburreko mailegu bat (7,2 milioi euro) erregistratzeko. Zenbateko hori finantza aktiboan aldakuntzari buruzko kapituluetan erregistratu zen gastu eta sarrera gisa, baina egokiago izango*

zen *aurrekontutik kanpo izapidetzea*." Hau da, aipatu kontu epaitegiak defendatutako irizpidea bat dator udal honek mantendu eta aplikatu duenarekin.

Horrenbestez, aurreko salbuespena dela-eta izandako desadostasunak berarekin dakar salbuespen bera zabaltzea Ganbera horrek bere txostenean jasotako kontabilitateko eta aurrekontuko egoera-orri/datu guztietara; izan ere, haiek egin dira Areaceari emandako milioi bat euroko mailegua aurrekontukotzat jota.

Azaldutakoa dela eta, **Kontuen Ganberari** eskatzen diot idazki hau onar dezan, eta beraren indarrez, Udal honen 2013ko ekitaldiari buruzko behin-behineko fiskalizazio txostenari buruzko alegazioak egintzat jo ditzan eta baiets ditzan, eta, horrenbestez, aipatutako txostena alda dezan, Areaceari sozietateari emandako 1.000.000 euroko epe laburreko maileguari buruzko salbuespena kenduz eta mailegu hori, eragin guztietarako aurrekontuz kanpoko eragiketatzat joz.

Justizia hau eskatzen dut Uharten, 2015eko otsailaren 19an.

Uharteko alkate udalburua: Iñaki Crespo San José

UHARTEKO UDALAK AURKEZTU DITUEN ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMAN DIEN ERANTZUNA

Uharteko Udalak aurkeztutako alegazioak aztertu ditugu, eta behin-behineko txostenaren ondorioak aldarazten ez dituztenez, txosten hori behin betikotzat jotzea erabaki dugu.

Alabaina, Ganbera honek honako gogoetak zehaztu nahi ditu:

Lehena. Epe laburrerako emandako maileguen tratamenduari buruzko tokiko kontabilitatearen araudian zehaztasuna falta dela onartuta, esan beharra dago araudi horretan argiro zedarritzen dela zer den "epe laburra"; izan ere, kontzeptu hori dagokie urtebetera bitarteko indarraldia duten eragiketei, epe horren barruan hilabeteak aipatu edo bereizi gabe.

Bigarrena. Aurrekoarekin bat, ulertzen dugu eragiketa hori aurrekontuz kanpoko izaerakotzat hartzea ez datorrela bat urtebeterako eman diren maileguei eman zaien aurrekontu-tratamenduarekin, azken horiek aurrekontu-likidazioan erregistratu baitira.

Hirugarrena. Emandako maileguaren garrantzi kuantitatiboa dela-eta –milioi bat eurokoa da, hau da, aurrekontu-betetzeak jasotzen dituen gastuen ehuneko 14–, gomendagarria da hori aurrekontuan jasotzea, zeren eta jotzen baita kontabilitateko egoera-orri horrek Udalak egindako gastu-eragiketa guzti-guztiak jaso behar dituela. Ildo horretan, kudeaketa publikoan gardentasunaren printzipioa aplikatzeak exijitzen du aurrekontuek eta haien likidazioek behar beste informazio eta informazio egokia jasotzea, haien finantza-egoera egiaztatu ahal dadin.

Laugarrena. Azkenik, geroko egitate batetik heldu bada ere, maileguaren muga-eguna 2015eko uztailera arte luzatzen da; hau da, beste bederatzi hilabetez.

Halaber, Ganbera honek aitortzen du, bere txostenean dioen bezala, eragiketa horren xedea – aurrekontuan islatzen den ala ez alde batera utzita– izan zela nabarmen gutxitzea finantza-entitate atek Areacea sozietate publikoari emandako mailegu baten finantza-zama.

Iruñean, 2015eko otsailaren 24an

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoretzako teknikari izateko hiru lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa.

Lekualdatze lehiaketa bete gabe gelditu da

Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoretzako teknikari izateko hiru lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdiaren –Lehendakariaren 2015eko otsailaren 20ko erabakiaren bidez onetsia– 4. oinarriko 4. idatz-zatiak zera ezartzen du: "Ezarritako epean eskaerarik aurkezten ez bada, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak lehiaketa bete gabe gelditu dela deklaratzeko ebazpena emanen du. Ebazpen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da".

Arestikoarekin bat, eta lekualdatze lehiaketaren deialdian aurreikusitako epea iraganik eskaerarik aurkeztu gabe, deklaratu behar da aipatu lehiaketa

bete gabe gelditu dela. Hori dela-eta, Lehendakari-tza honek ERABAKI DU:

Lehena. Deklaratzea bete gabe gelditu dela Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoretzako teknikari izateko hiru lanpostu huts betetzeko lekualdatze lehiaketa, Lehendakariaren 2015eko otsailaren 20ko erabakiaren bidez onetsia.

Bigarrena. Xedatzea ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dela.

Iruñean, 2015eko martxoaren 27an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

